

Gizarte-arloko jurisdikzioan
erabiltzen diren hainbat
ereduren bilduma elebiduna

Colección bilingüe de
formularios utilizados en el
ámbito jurisdiccional social



LEGEAK
LEYES

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.es/argitalpenak - editorial@ehu.es

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9860-886-1
Depósito legal: BI - 1.582-2013

GIZARTE-ARLOKO JURISDIKZIOAN
ERABILTZEN DIREN HAINBAT
EREDUREN BILDUMA ELEBIDUNA

COLECCIÓN BILINGÜE DE
FORMULARIOS UTILIZADOS EN EL
ÁMBITO JURISDICCIONAL SOCIAL

AITOR BENGOETXEA ALKORTA
ELIXABETE ERRANDONEA ULAZIA
ISABEL OTXOA CRESPO
EDURNE TERRADILLOS ORMAETXEA

UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasleak

PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN. ELHUYAR FUNDAZIOA
Zuzentzailea

JUAN KRUIZ IGERABIDE SARASOLA
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

ANA LETURIA NAVAROA
UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Argitalpenaren koordinatzailea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKIBIDEA

ÍNDICE

1. Sarrera	9
2. Estiloari buruzko ohar batzuk	11
3. Esaldi erabilienak	14
4. Modelos	20
1. Denuncia ante la inspección	22
2. Acto de conciliación sobre cantidad	26
3. Demanda sobre cantidad	30
4. Citación a juicio al FOGASA	36
5. Subsanción	38
6. Ejecución de sentencia sobre cantidad	42
7. Acto de conciliación sobre despido	46
8. Demanda sobre despido	50
9. Ejecución de sentencia sobre despido	56
10. Demanda sobre modificación de condiciones de trabajo	60
11. Vacaciones	66
12. Reclamación previa	72
13. Demanda sobre prestación	76
14. Solicitud de acumulación	82
15. Recurso de aclaración	86
16. Desistimiento de la demanda	88
17. Recurso de reposición	90
18. Impugnación de recurso de reposición	94
19. Anuncio de recurso de suplicación	98
20. Formalización de recurso de suplicación	100
21. Impugnación de recurso de suplicación	112
22. Personación ante el Tribunal Supremo	120
23. Solicitud de desglose	124
24. Solicitud de certificación	126
25. Certificación de sentencia para recurso de casación	128

1. Sarrera	9
2. Estiloari buruzko ohar batzuk	11
3. Esaldi erabilienak	14
4. Ereduak	21
1. Ikuskaritzari salaketa idazkia	23
2. Diru-kopuru bati buruzko adiskidetze-ekitaldia	27
3. Diru-kopuru bati buruzko demanda	31
4. Soldatak Bermatzeko Funtsa epaiketara deitzea	37
5. Konponketa	39
6. Diru-kopuru bati buruzko epaia betearaztea	43
7. Kaleratzeari buruzko adiskidetze-ekitaldia	47
8. Kaleratzeari buruzko demanda	51
9. Kaleratze-epaia betearaztea	57
10. Lan-baldintzen aldaketari buruzko demanda	61
11. Oporrak	67
12. Aurretiazko erreklamazioa	73
13. Prestazioari buruzko demanda	77
14. Metatze-eskaera	83
15. Argitzeko errekurtsioa	87
16. Demandan atzera egitea	89
17. Berraztertze-errekurtsioa	91
18. Berraztertze-errekurtsioa aurkaratzea	95
19. Erregutze-errekurtsioa iragartzea	99
20. Erregutze-errekurtsioa formalizatzea	101
21. Erregutze-errekurtsioa aurkaratzea	113
22. Auzitegi Gorenaren aurrean pertsonatzea	121
23. Banakatze-eskaera	125
24. Ziuertagiri-eskaera	127
25. Epaiaren ziuertagiria kasazio-errekurtsorako	129

Sarrera

Legeak-Leyes bildumako 15. zenbaki gisa aurkezten dugun lan honekin, laguntza bat eskaini asmo diegu gizarte-arloko auzitegien aurrean beren lana euskaraz egin nahi duten abokatuei. Izan ere, lan honen jatorrian, LAB sindikatutik egin ziguten eskari bat dago: ea ikastaro bat emango genien beren abokatuek auzitegien aurrean lana euskaraz egiten laguntzeko. Ziur gaude esperientzia praktikoa horrek aberastu egin zuela orain aurkezten dugun lana.

Jakina da gaztelania dela hizkuntza nagusia auzitegietan. Baina ez edozein gaztelania, ez eguneroko bizitzako jardueretan erabiltzen dena, baizik eta denboraren poderioz eta ohituragatik auzitegien aurrean mintzatzeko sortuz joan den berezko modu bat. Bai terminologia aldetik, bai joskera aldetik, auzitegietan erabiltzen den hizkerak baditu berezitasunak. Auzitegietako berezko mintzamolde horrek zailtasunak eranstean dizkio lana euskaraz egin nahi duenari.

Gure lanaren abiapuntutzat, lanaren eta gizarte-segurantzaren arloan arruntak diren hainbat demanda eta errekurtsoren idatziak hartu ditugu, eta horiek euskaraz idazten saiatu gara.

Alde batetik, terminologiaren arazoarekin egin dugu topo. Zailtasunak hiztegien bidez konpontzen saiatu gara, eta bereziki baliagarria izan zaigu Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioak arlo horretan egindako lana. Terminologiaren esparruan, zenbait helbide elektroniko erabili ditugu, hala nola justizia.net, ivap.org (eta kontsultak egiteko helbide horrek ematen duen aukera, baita estekak ere beste hiztegietan sartzeko: Elhuyar, 3000 hiztegia, etab.), Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* eta Lan Zuzenbideko Hiztegia (EHU-IVAP).

Topatu dugun bigarren zailtasuna (eta beharbada lanik handiena eman diguna) esaldien egitura izan da. Maiz aurkitu ditugu zuzenak ez diren baina ohi-

turagatik hala erabiltzen diren esaldiak. Horregatik, ahaleginak egin ditugu esanahi berbera zuzen eta ulertzeko moduan adierazten. Eta, beste alde batetik, gaztelaniaz arruntak diren baina euskaraz hain maiz erabiltzen ez diren egiturak topatu ditugu: esate baterako, egitura pasiboak eta hain ugaria den (eta hainbesteko lanak eman dizkigun) gerundioa. Gaztelaniaz gerundioz eraturako esaldien kasuan, kostatzen zaigu bereiztea bakoitzaren esanahia eta ondo ala gaizki erabilita zegoen, eta, jakina, gero esaldi hori euskaraz emateko modu egokia. Lan honi ekitean, gure ardura izan da oso testu argiak egitea, noizik eta behin erdarako egiturara joz. Berrituz ere adierazi behar dugu gaztelania dela hizkuntza nagusia auzitegietan, eta bereziki horrek eraman gaitu aukera hori egitera.

Guztiagatik, komenigarria iruditu zaigu lan honetan guk erabilitako zenbait ohar edo irizpide idaztea, eta «Estiloari buruzko ohar batzuk» izenburupean jasotzea nahi izan ditugu. Alegia, guk kontuan hartu ditugun eta erabilgarriak iruditzen zaizkigun zenbait ohar dira.

Beraz, hitz gutxitan, orri hauetan aurkezten dizuegun lana zera da: guk euskaratutako zenbait demanda eta errekurso (lehenago aipaturako ikastarorako erabili genuen materiala), eta guk erabili ditugun eta proposatzen ditugun ohar batzuk.

Arestian esan bezala, lanaren helburua da Gizarte-arloko auzitegien aurrean bere lana egin nahi duenarentzat erabilgarria izan daitekeen zenbait material eskura jartzea.

Hala izatea nahiko genuke.

Estiloari buruzko ohar batzuk

Lan hau egiteko, gaztelaniaz idatzitako demandak izan ditugu abiapuntu. Eta, demandak euskaraz nola idatzi aztertzeko garaian, behin eta berriro topatu izan dugun arazo bat azpimarratu nahi dugu: gaztelaniaz maiz erabiltzen den hainbat egitura ez dira euskaraz egoki gertatzen hitzez hitz itzulita. Batzuetan, gaztelaniaz ere ez direlako ondo erabiliak, eta, beste batzuetan, gaztelaniaz erabili arren euskaraz jartzean desegokiak edo ulergaitzak gertatzen direlako.

Horixe gertatzen da, adibidez, egitura pasiboarekin («ha sido desestimada»...). Egitura hori oso ohikoa da gaztelaniaz egiten diren demandetan. Behin eta berriro aurkitu dugu landu ditugun testuetan. Euskaraz, berriz, egitura aktiboak erabiltzeko joera handiagoa dugu («ezetsi dugu/dute»...). Eta, horretaz gainera, egitura aktiboa duten esaldiak laburragoak izan ohi dira eta estilo zuzenagoa dute. Hori guztia dela eta, egitura pasiboaren aurretik, egitura aktiboa hobetsi dugu lan honetan.

Aipatu nahi dugun bigarren arazoa egitura nominalizatua da: alegia, aditzetatik eratorritako izenak asko erabiltzea ekintzak adierazteko (aditzak berak erabili beharrean), eta halako bat baino gehiago kateatzea zenbaitetan. Erdarazko testuetan oso ohikoa da nominalizazioa, eta testu juridikoetan ere askotan erabiltzen da egitura hori. Gure lan honetan, ikusi dugu egitura hori hitzez hitz euskaratzeak arazoak ekartzen dituela, testua askotan ulergaitza edo ulertezina bihurtzen duela. Hori adibide batzuen bidez ikusiko dugu. Beraz, gure aukera izan da ahal den neurrian egitura horiek ez erabiltzea eta haien ordeztu gauza bera esateko beste modu batzuk bilatzea.

Hirugarren arazoaren iturria erdal gerundio okerrak dira. Halakoak ere askotan erabiltzen dira erdarazko demandetan, eta zalantza sortzen da itzultzean. Beraz, gerundio horiek euskaratzean akats berbera euskarazko testura pasatzeko arrisku handia daukagu.

Aipatutako hiru arazo horiek polikiago azaldu nahi ditugu eta adibide batzuk jarri. Horretarako, *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*¹ liburua hartu dugu oinarritzat, eta guk landutako testuetan topatutako adibide batzuk erabiliko ditugu.

EGITURA PASIBOAK

Itzulitako demandetan, honelako egitura pasiboak topatu ditugu:

- Interpuesta la correspondiente reclamación previa ésta **ha sido desestimada**.
- El actor **debe ser declarado** afecto a incapacidad permanente total.

Horien aurrean, lehenago aurreratu dugunez, egitura aktiboak hobestea izan da gure aukera. «Ez da ahaztu behar (...) euskaraz, batez ere hegoaldean, egitura pasiboetarako baino joera handiagoa izan dugula aktiboetarako (...) idazleak ikusi beharko du kasuan-kasuan zein izan daitekeen egokiena: zein lo-tzen zaion estuenik erdal testuari (hala eskatzen denean), zein izango zaion irakurleari ulertterazago, etab.»²

Aipatutako adibideetan, bide hauek proposatu ditugu egitura pasiboen orde-z:

- Interpuesta la correspondiente reclamación previa ésta **ha sido desestimada**: Ebazpen horren aurka, aurretiazko erreklamazioa jarri zen, eta **ezetsi egin zioten**.
- El actor **debe ser declarado** afecto a incapacidad permanente total: (...) ezintasun iraunkor osoa duela **aitortu beharko litzateke**.
- Alegando infracción del artículo 199 de la Ley de Jurisdicción Social: Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 199. artikulua **urratu dela** alegatuz.

¹ Xabier Alberdi Larizgoitia eta Ibon Sarasola Errazkin: *Euskal estilo libururantz*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2001.

² Xabier Alberdi Larizgoitia eta Ibon Sarasola Errazkin, *aip. ob.*, 160. orria.

EGITURA NOMINALIZATUA

Adituek diotenez³, erdaraz, batez ere administrazioko eta zuzenbideko testuetan, askotan agertzen da nominalizazioa, hots, aditzaren ordeztatik hartatik eratorritako izena baliatzea ekintza adierazteko (*reaparecer/reaparición, exponer/exposición, expandir/expansión, asimilar/asimilación, abrir/apertura, cerrar/cierre...*). Eta askotan izen horiek bata bestearen atzetik jartzen dira. Euskal tradizioko testuetan, berriz, askoz ere gutxiagotan. Aditzen ordezt izenak metatzeak esaldia zaildu eta ilundu egiten du, eta estilo abstraktuagoa eta pisuagoa sortzen.

Gure iritziz, «Adiskidetzailaren berronarpena» baino naturalagoa da eta errazago ulertzen da «Adiskidetzaila berronartzea».

Orobat, «Langileentzako jakinarazpena eztabaiden eta kontsulten epearen irekiduraz» (*Comunicación a los trabajadores de la apertura del periodo de discusión y consultas*) egokiago ikusten dugu honela adierazirik: «Langileei jakinarazten zaie ireki dela eztabaidak eta kontsultak egiteko garaia»⁴.

Guk landutako demandetan, horrelako adibide asko dago: *la modificación fáctica, la no constitución de depósito, la no consignación de la cantidad, la readmisión del trabajador, con estimación de lo alegado...* Eta hauek dira guk proposatutako bi-deak (gaztelaniaz izena dagoen tokian, euskaraz *-tze* aditz-izena edo aditza bera):

- La modificación fáctica: *egitateak aldatzea*
- La no constitución de depósito: *gordailurik ez eratzea*
- La no consignación de la cantidad: *zenbatekoa ez kontsignatzea*
- La readmisión del trabajador: *langilea berronartzea*
- Con estimación de lo alegado: *alegatutakoa onartu*

ERDAL GERUNDIO OKERREN ERAGINA⁵

Abiapuntutzat hartu ditugun demandetan aurkitutako hainbat gerundiok ere lanak eman dizkigute. Adibidez:

- «*Suplican que habiendo por presentado el presente escrito con sus copias, se sirva admitirlo, tener por subsanada la demanda origen de las presentes actuaciones, dando a los Autos el curso que en derecho corresponda*»

³ Xabier Alberdi Larizgoitia eta Ibon Sarasola Errazkin, *aip. ob.* 223. orria.

⁴ Xabier Alberdi Larizgoitia eta Ibon Sarasola Errazkin, *aip. ob.* 226. orria.

⁵ Xabier Alberdi Larizgoitia eta Ibon Sarasola Errazkin, *aip. ob.* 319. orria.

«Dando» horren ordainetan «emanik» jartzea etorri izan zaigu burura. Baina «dando» horren ondoren datorren ekintza beranduago gertatuko da; «y dé» esan zitekeen. Eta, printzipioz, «partizipioa+-(r)ik» egitura (adibidez: *emanik*) ez da egokia geroagoko ekintza bat adierazteko, gaztelaniaz gerundioa zeregin horretarako erabiltzea egokia ez den bezalaxe.

Gauza bera gertatzen da «habiendo» aditzarekin («habiendo por presentado»). Haren ordeaz «tenga por presentado» erabilita gauza bera esaten da, errazago ulertuko genuke eta errazago euskaratu.

Beraz, aipatutako adibidearen aurrean, hau aukeratu dugu:

- «Suplican que **habiendo** por presentado el presente escrito con sus copias, se sirva admitirlo, **teniendo** por subsanada la demanda origen de las presentes actuaciones, y **dando** a los Autos el curso que en derecho corresponda»
- «...eskatzen diogu: idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat **eman eta onar ditzala**; konpondutzat **jo dezala** prozesu honi hasiera eman dion demanda, eta zuzenbidean dagokien bidea **eman diezaiela** ondoren jarduketei».

ESALDI ERABILIAK

Demandaren datuak eta ohiko hasiera eta bukaerak

- *Domicilio a efecto de citaciones*: zitatzeke helbide.
- *Comparezco y digo*: agertzen naiz eta esaten dut.
- *Como mejor proceda en Derecho*: zuzenbidean bidezkoen den moduan.
- *Por medio del presente escrito*: idazki honen bidez.
- *Interpongo demanda*: demanda jartzen dut.
- *En los autos que se siguen a instancia del demandante*: demandatzailearen eskariz bideratzen ari diren jarduketa hauetan.
- *En base a lo siguiente*: honetan oinarrituta / eskaeraren oinarriak honako hauek dira.
- *Por lo expuesto*: azaldukoagatik.
- *Por todo ello*: hori guztia dela eta.

— *Tras los trámites oportunos, acuerde...*: egoki diren izapideen bidez... erabaki dezala.

— *Condenando a la demandada a estar a los efectos de dicha declaración*: demandatua aitortza horrek dituen ondorio guztiak betetzera kondenatuz.

— *Por ser de justicia que se pide*: bidezkoa delako eskatzen dut.

— *Demás legislación y jurisprudencia aplicable al caso*: kasuari aplikatu beharreko gainerako araudia eta jurisprudentzia.

— *Sin perjuicio de lo que se fije en conclusiones definitivas*: hori ez da eragozpen izango azken konklusioetan zehazten denerako.

— *Otrosí digo que en el acto de la vista oral pretendo valerme de los siguientes medios de prueba*: berebat diot ahozko ikustaldian honako frogabide hauek erabili nahi ditudala.

— *Suplico que, teniendo por propuestos los indicados medios de prueba, se sirva admitirlos y proveer lo necesario para su práctica en el acto de Juicio Oral, sin perjuicio de otros que puedan proponerse*: Eskatzen dut, aipatutako frogabideak proposatutzat eman eta onar ditzala, eta ahozko ikustaldian haiek burutzeko beharrezkoa dena erabaki dezala. Hori ez da eragozpen izango beste frogabide batzuk proposatzeko.

— *Cite a las partes para los actos de conciliación y juicio*: alderdiak zitzatu ditzala adiskidetzeko eta epaiketa-ekitaldietarako.

— *Dando a los autos el curso que corresponda*: autoei zuzenbidean dagokien bidea emanik.

— *Tenga por hechas las manifestaciones que anteceden a los efectos oportunos*. Azaldutakoa kontutan har dezala dagozkion ondorioetarako.

— *Es justicia*: bidezko baita.

Frogak

— *Prueba documental, a aportar por la demandada, consistente en los partes de trabajo del mes de febrero de 2004*: demandatuak aurkeztu beharreko agiri-froga: 2004ko otsaileko lan-parteeak.

— *Se requiera al demandado para que aporte...*: demandatuari errekerimendua egin diezaiola... aurkez dezan.

— *Advirtiendo al demandado de que de no comparecer podrá ser tenido por confeso*: demandatutakoari ohartaraziz agertu ezean aitortutzat jo ahal izango dela.

— *Testifical, que se articulará en su día:* lekukotza-froga, dagokion unean proposatuko dena.

Beste zenbait

— *Demanda sobre prestación:* prestazioari buruzko demanda.

— *Su trabajo consiste en...:* lanbidearen ohiko eginkizunak honako hauek dira...

— *El INSS le reconoce el siguiente cuadro residual:* GSINek hondar-koadro kliniko hau aitortzen dio.

— *Por lo que difícilmente el dicente puede realizar la prestación de trabajo en condiciones normales de rendimiento, esto es, con las notas de profesionalidad y continuidad requeridas en cualquier puesto de trabajo.* Horregatik, demanda-jartzai-leak nekez bete dezake bere lan-prestazioa normaltasunez, alegia, edozein lan-postutan behar den profesionaltasun eta jarraitutasunez.

— *Dicte sentencia reconociendo al demandante afecto a una Incapacidad Permanente Total derivada de enfermedad común o subsidiariamente Parcial.* Epaia eman dezala eta hartan aitortu dezala demandatzaileak gaixotasun arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkor osoa duela, edo, modu subsidiarioan, partziala.

— *Fundamentos de Derecho:* zuzenbideko oinarriak.

— *Arts. 1 y 2 de la Ley de Jurisdicción Social:* Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 1. eta 2. artikulua.

— *Art. 21, para hacer constar que se valdrá de Letrado:* 21. art., letraduaren laguntza erabiliko dudala jasota gera dadin.

— *Art. 63 y siguientes, aportando la contestación a la Reclamación Previa:* 63. art. eta hurrengoak, jarritako Aurretiazko Erreklamazioari emandako erantzuna erantsiz.

— *Art. 63 y siguientes, aportando el acta de conciliación:* 63. art. eta hurrengoak, adiskidetze-akta erantsiz.

— *Prueba documental, a aportar por las demandadas, consistente el expediente administrativo con 15 días de antelación a la vista del juicio oral:* Agiri-froga: ahozko judizioa baino 15 egun lehenago demandatuek administrazio-espeditentea aurkez dezaten.

— *Demanda de modificación de condiciones de trabajo:* lan-baldintzen aldatetari buruzko demanda.

— *La demandante presta servicios por cuenta y orden de la demandada desde..., con categoría de... y un salario anual de... brutas:* Demandatzaileak de-

mandatuarentzat eta haren aginduetara lan egiten du ...z geroztik, ... kategoriarekin eta urtean ... soldata gordina zuela.

— *La empresa le comunicó verbalmente que...*: enpresak langileari ahoz jakinarazi zion...

— *La empresa no ha alegado causas económicas, técnicas, organizativas o de producción para proceder a la modificación de las condiciones de trabajo de la demandante*: Enpresak ez du kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekorik alegatu demandatzailearen lan-baldintzak aldatzeko.

— *Demanda de despido*: kaleratzeari buruzko demanda.

— *Suscribió un contrato temporal de obra o servicio determinado, cuyo objeto era atender el exceso de producción derivado de...*: Lan edo zerbitzu jakineko aldi baterako lan-kontratua sinatu zuen, gehiegizko ekoizpenari erantzuteko helburuarekin. Gehiegizko ekoizpen hori ... ondorioz sortu zen...

— *La comunicación de finalización de contrato debe calificarse como un despido nulo o subsidiariamente improcedente*: kontratuaren amaieraren jakinarazpena kaleratze deuseztat hartu behar da, edo, modu subsidiarioan, bidegabetzat.

— *La empresa demandada le comunicó el despido mediante carta, el día 24 de octubre, con efectos a la misma fecha, alegando la comisión de una falta grave contra un compañero de trabajo. 2002ko otsailaren 24an, demandatutako enpresak, gutun bidez, langileari jakinarazi zion egun horretatik beretik kaleratuta zegoela, lankide baten aurka falta oso larria egitegatik.*

— *La empresa le comunicó verbalmente el despido con efectos al día siguiente*: enpresak ahoz jakinarazi zion hurrengo egunetik kaleratuta zegoela.

— (suplica)... (eskatzen du)...

...*con estimación de lo alegado, se declare la nulidad del despido*: alegatutakoa onarturik, kaleratzea deuseztat jo dezala.

...*se condene a las demandadas a la inmediata readmisión del actor, en idénticas circunstancias a las ostendadas hasta el cese*: demandatutakoak kondena ditzala auzi-jartzailea berehala berronartzera, kaleratu arte zeuzkan baldintza berberetan.

...*o subsidiariamente se declare la improcedencia del mismo (despido)*: edo, modu subsidiarioan, kaleratzea bidegabetzat jo dezala.

...*y se condene a las demandadas, a su opción, a la readmisión o a abonar a la actora una indemnización*: demandatutakoak kondenatu, auzi-jartzailea berro-nartzera edo kalte-ordaina ordaintzera, haien aukeran.

...una indemnización de 33 días de salario real por año de antigüedad, prorrateándose por meses la fracción del año, y equiparándose a mes completo las fracciones inferiores. 33 eguneko benetako soldata antzinatasun-urte bakoitzeko, urte-zatiak hilabetetan hainbanatuz eta zati txikiagoak hilabete osotzat hartuz.

...y en todo caso (se condene) al abono de los salarios dejados de percibir: eta edozein kasutan jaso ez dituen soldatak ordaintzera kondenatu.

— 33 días de salario por año de servicio: 33 eguneko soldata lan-urte bakoitzeko.

— Con fecha de efectos del mismo día: eragina egun berean hasiz.

— Demanda de reclamación de cantidades: diru-kopuru bati buruzko demanda.

— En concepto de diferencias salariales por aplicación del Convenio Colectivo, se adeuda...: Hitzarmen Koletiboak aginduta, honako diru-kopuru hau zor zaio... Devengado: sorrarazitakoa

— Percibido: kobratutakoa.

— Así desglosado: atalez atal honela bereizirik.

— Es de aplicación el convenio colectivo de: aplikatu beharrekoa... hitzarmen kolektiboa da.

— Subsanación: konponketa.

— Tenga por subsanado: konpondutzat jo dezala.

— Corrección: zuzenketa.

— Formulo impugnación del recurso de reposición interpuesto por la contraparte: aurkarapena aurkezten dut aurkariak egindako berraztertze-errekurtsoaren kontra.

— Solicito que se desestime el recurso: epaitegiak errekurtsoa ezetsi dezala eskatzen dut.

— Tenga por impugnado el recurso: errekurtsoaren kontrako aurkarapena egintzat jo dezala.

— Y en su virtud confirme en todos sus extremos el Auto...: eta horrela, ...autoaren eduki guztiak berretsi ditzala.

— Ejecución: betearaztea.

— En concepto de principal: kondenaren kontzeptu nagusi gisa.

— ... euros, en concepto de interés anual del 10% devengado desde la fecha de la sentencia de instancia, sin perjuicio de la tasación definitiva: ... euro auzialdiko epaia eman zenetik sortutako interesengatik, hau da, urtean % 10. Diru-kopuru hori behin-behinekoa da, tasazioa geroago egingo baita.

— *Seguidos los trámites oportunos, acuerde proceder a la vía de apremio*: egoki diren izapideen bidez, premiamenduzko bidea erabaki dezala.

— *Acumulación*: metatzea.

— *Recurso de aclaración*: argitzeko errekurtsu.

— ... *supone la improcedencia del recurso*: errekurtsua bidegabe izatea dakar.

— *En el supuesto de autos*: auzibide honen kasuan.

— *Requisito procesal*: betekizun prozesal.

— *Debe entenderse insubsanable*: konponezintzat jo behar da.

— *Cuando la consignación es totalmente inexistente*: ezer kontsignatu ez denean.

— *Desestime el recurso interpuesto de contrario*: ezets desala aurkariak aurkeztutako errekurtsua.

— *Al Juzgado de lo Social para ante la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia*: Gizarte Arloko Epaitegari, Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko Salarentzat.

— *Motivo del recurso*: errekurtsuaren arrazoi.

— *Desestime este motivo del recurso*: ezets dezala errekurtsuaren arrazoi hau.

— *Invocar*: aipatu, edo —ondo doanean— argudiatu.

— *Provocar indefensión*: defentsa-gabezia eragitea.

— *Los hechos declarados probados*: frogatutzat jo diren egitateak.

— *Derecho sustantivo*: zuzenbide substantibo.

— *Tener por desistido*: atzera egindakotzat jo.

— *Se me tenga por desistido*: ni atzera egindakotzat jotzea.

— *Desistir parcialmente de la demanda*: partez atzera egitea demandan.

— *En tiempo y forma*: garaiz eta forma egokian

— *Lo una a los autos de su razón*: dagozkion auzibide-agiriei erants diezaiela.

— *Lo una al expediente de su razón*: dagokion espedienteari erants diezaiola.

— *Se acompañan... documentos*: ...dokumentuak doaz erantsita.

— *Testimonio*: lekukotza.

— *Certificación*: ziurtagiria.

Modelos

Ereduak

1. Denuncia ante la Inspección

A LA INSPECCIÓN PROVINCIAL DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL DE BIZKAIA

Irune Badiola, mayor de edad con D.N.I. n.º 12.296.659, con domicilio a efectos de notificación en Erandio-48950, Plaza San Agustín, 3-1.º; ante la Inspección de Trabajo comparece y como mejor en Derecho proceda, DICE:

Que por medio del presente escrito vengo a formular denuncia frente a CONSTRUCCIONES Y REFORMAS PÉREZ, S.L.L., a citar en Barakaldo-48790, C/ Azkuene, 14-1.º centro-dcha; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El denunciante prestaba sus servicios por cuenta y orden de la empresa demandada con la categoría Peón desde el 16 de noviembre de 1998 hasta el 18 de junio de 2003 y salario mensual de 1.157,67 € brutos con p.p.

SEGUNDO.— El Convenio Colectivo de aplicación es el de Construcción de Bizkaia.

TERCERO.— Los hechos que se denuncian es la falta de cotización desde la fecha del despido hasta la fecha del Auto de extinción de la relación labo-

1. Ikuskaritzari salaketa-idazkia

BIZKAIKO GIZARTE ARLOKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZA PROBINTZIALARI

Nik, Iruñe Badiolak —adinduna; 12296659 zenbakiko NANA; jakinarazpenetarako helbidea, Erandio 48950, San Agustin Enparantza, 3-1—, Lan Ikuskaritzaren aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bitartez salaketa jartzen dudala CONSTRUCCIÓN Y REFORMAS PÉREZ, S.L.L.-ren aurka —zitazioak egiteko helbidea, Barakaldo 48790, Azkuene kalea, 14-1 erdia-eskuina—, honetan oinarrituta:

EGITATEAK

LEHENA.— 2005eko azaroaren 16tik 2010eko ekainaren 18ra arte, salatazailerik enpresa demandatuarentzat eta haren aginduetara lan egin du, peoi kategoriarekin, hilabeteko 1.157,67 €-ko soldata gordina zuela, aparteko ordain-sariak barne.

BIGARRENA.— Bizkaiko Eraikuntzako Hitzarmen Kolektiboa aplikatu behar da.

HIRUGARRENA.— Salatzen diren egitateak honako hauek dira: kotizazioa, kaleratze-datatik lan-harremanaren iraungipen-autoa arte, eta de-

ral así como que la empresa demandada no ha entregado al trabajador la documentación necesaria para tramitar la prestación por desempleo correspondiente. (Se aportan la Sentencia y el Auto de extinción del Juzgado de lo Social n.º 3 de los de Bizkaia).

Por lo expuesto, A LA INSPECCIÓN DE TRABAJO

SOLICITA que habiendo por presentado este escrito de denuncia con sus copias, se sirva admitirlo y tener por denunciados los hechos que anteceden.

En Bilbao, a 18 de junio de 2010.

mandatuak langileari dagokion langabezia-prestazioa izapidetzeko dokumentazioa eman ez izana (Bizkaiko Gizarte Arloko 3 zenbakiko Epaitegiaren epaia eta iraungipen-autoa erantsi dira).

Azaldutakoagatik, LAN-IKUSKARITZARI

ESKATZEN DIOT salaketa-idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutat eman eta onar ditzala, eta adierazitako egitateak salatutat eman ditzala.

Bilbon, 2010eko ekainaren 18an.

2. Acto de conciliación sobre cantidad

A LA SECCIÓN DE CONCILIACIÓN DE LA DELEGACIÓN TERRITORIAL DE TRABAJO DEL GOBIERNO VASCO

Mikel Odriozola, mayor de edad con D.N.I. n.º 78.872.845, con domicilio en Erandio-48950, Plaza San Agustín, 3-1.º; ante la Sección de Conciliación comparece y como mejor proceda en derecho, DICE:

Que, mediante el presente escrito viene a interesar la celebración de ACTO DE CONCILIACIÓN sobre CANTIDAD frente a la empresa INFORMÁTICA DEL CAMPO, S.L. a citar en Zamudio-48170, C/ Parque Tecnológico, 305-F; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El trabajador prestaba sus servicios por cuenta y orden de la empresa demandada con la categoría de Analista-programador desde el 27 de octubre de 1999 y salario mensual de 1.382 euros brutos con p.p.

2. Diru-kopuru bati buruzko adiskidetze-ekitaldia

EUSKO JAURLARITZAKO LANEKO LURRALDE ORDEZKARITZAKO ADISKIDETZE ATALARI

Nik, Mikel Odriozolak —adinduna; 78872845 zenbakiko NANA; jakinarazpenetarako helbidea, Erandio-48950, San Agustin Enparantza, 3-1—, Adiskidetze Atalaren aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bitartez, INFORMÁTICA DEL CAMPO, S.L. enpresaren aurrean —zitatzeko helbidea, Zamudio 48170, Parke Teknologiko kalea, 305-F—, DIRU-KOPURU BATI buruzko ADISKIDETZE-EKITALDIA egin nahi dudala, honetan oinarrituta:

EGITATEAK

LEHENA.— Langileak enpresa demandatuarentzat eta haren aginduetara lan egiten zuen, analista programatzailearen kategoriarekin, 2009ko urriaren 27az geroztik, hilabetean 1.382 euroko soldata gordina zuela, aparteko ordain-sariak barne.

SEGUNDO.— El Convenio de aplicación es el Convenio Colectivo de Oficinas y Despachos de Bizkaia.

TERCERO.— La empresa demandada adeuda al trabajador la cantidad de 3.745 euros. en concepto de diferencias salariales en aplicación del Convenio desde octubre de 2010 a octubre de 2011.

La presente papeleta de conciliación tiene por objeto que la empresa se avenga a:

RECONOCER que adeuda al conciliante la cantidad de 3.745 euros.

ACCEDER al abono de dicho importe, más las cantidades devengadas en concepto del 10% de interés por mora.

DE LA SECCIÓN DE CONCILIACIÓN SOLICITA que, habiendo por presentado este escrito con sus copias, se sirva admitirlo, disponer la celebración del acto de conciliación y citar de comparecencia a las partes en el día y hora señalados al efecto.

Por ser todo ello de Justicia que se pide en Bilbao a 29 de octubre de 2011.

BIGARRENA.— Bizkaiko Bulegoetako Hitzarmen Kolektiboa aplikatu behar da.

HIRUGARRENA.— Demandatuak langileari 3.745 euro zor dizkio, 2010eko urritik 2011eko urrira arte, hitzarmena aplikatzean soldatako diferentziak direla eta.

Adiskidetze-orri honen helburua da enpresak abenikoa egitea honi buruz:

AITORTZEA adiskidetzaileri 3.745 euro zor dizkiola.

ONARTZEA zenbateko hori ordaintzea eta % 10 berandutze-interesengatik.

ADISKIDETZE ATALARI ESKATZEN DIOT idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta adiskidetzeko ekitaldia egiteko agindu eta alderdiak dei ditzala, horretarako zehazten den egun eta orduan ager daitezen.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2011ko urriaren 29an.

3. Demanda sobre cantidad

AL JUZGADO DE LO SOCIAL DE BIZKAIA QUE POR TURNO CORRESPONDA

Ainhoa Arrese, mayor de edad con D.N.I. n.º XXX y domicilio a efectos de notificación en Erandio-48950, Plaza de los Fueros, 3-1.º; ante el Juzgado de lo Social comparece y como mejor proceda en Derecho, DICE:

Que por medio del presente escrito viene a formular demanda sobre CANTIDAD frente a la empresa INFORMÁTICA DEL CAMPO, S.L. a citar en Zamudio-47930, C/ Parque Tecnológico, 315-F; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El trabajador prestaba sus servicios por cuenta y orden de la empresa demandada con la categoría de Analista-programador desde el 27 de octubre de 1999 y salario mensual de 1.382 euros brutas con p.p.

SEGUNDO.— El Convenio de aplicación es el Convenio Colectivo de Oficinas y Despachos de Bizkaia.

3. Diru-kopuru bati buruzko demanda

TXANDAZ DAGOKION BIZKAIKO GIZARTE-ARLOKO EPAITEGIARI

Nik, Ainhoa Arresek —adinduna; XXX zenbakiko NANA; jakinarazpene-
tarako helbidea, Erandio 48950, Foruen Plaza 3-1—, gizarte-arloko epaitegia-
ren aurrean agertu, eta esaten dut:

Idazki honen bitartez DIRU-KOPURU BATI buruzko demanda aur-
kezten dudala INFORMÁTICA DEL CAMPO, S.L. enpresaren aurka —zi-
tatzeko helbidea Zamudio 47930, Parke Teknologikoa 315-F—. Oinarriak
hauek dira:

EGITATEAK

LEHENA.— Demandatuarentzat lan egiten nuen, analista programatzai-
learen kategoriarekin, 2008ko urriaren 27az geroztik, 1.382 euroko soldata
gordina nuela, aparteko pagak barne.

BIGARRENA.— Aplikatu beharreko hitzarmena Bizkaiko Bulegoetako
Hitzarmen Kolektiboa da.

TERCERO.— La empresa demandada adeuda al trabajador la cantidad de 3.745,71 € (3.745 euros) en concepto de diferencias salariales en aplicación del Convenio desde octubre de 2000 a octubre de 2010, según se desglosa a continuación:

Octubre 2009:

Abonado: 801 euros

Debía abonar: 1.326 euros

Diferencia: 524 euros

...

TOTAL: 3.745 euros

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I. Ley de Jurisdicción Social, arts. 1 y 2; 21, haciendo constar que esta parte se valdrá de Letrado; 63 y ss, adjuntándose certificación de la celebración de acto de conciliación; y 80 y ss.

II. Estatuto de los Trabajadores, en especial artículos 26 y siguientes.

III. Convenio Colectivo de Oficinas y Despachos de Bizkaia.

Por todo lo cual, AL JUZGADO DE LO SOCIAL

SUPLICA que habiendo por presentado este escrito con sus copias se sirva admitirlo y, previos los oportunos trámites citar a las partes para los actos de conciliación y juicio y, en su día dictar Sentencia por la que con estimación de lo alegado se condene a la empresa demandada al abono de la cantidad total de 3.745,71 €, así como de los intereses producidos desde que se devengó dicha cantidad a razón del 10% anual, sin perjuicio de lo que se fije en conclusiones definitivas. Es justicia.

OTROSÍ DICE que para el acto de juicio intentará valerse de los siguientes medios de prueba:

INTERROGATORIO DE PARTES, con apercibimiento a la demandada de que si no comparece, podrá ser tenida por confesa.

DOCUMENTAL, consistente en que por la parte demandada se aporten los recibos de salarios del actor firmados por éste de los últimos seis meses, boletines de cotización del mismo periodo, Libro de Matrícula en el que está inscrito, partes de trabajo del mismo periodo.

HIRUGARRENA.— Hitzarmen Kolektiboak aginduta, demandatuak 3.745 € zor dizkit, 2009ko urritik 2010eko urrira arte, honela banakatuta:

2009ko urria:

Ordaindua: 801 euro

Ordaindu beharrekoa: 1.326 euro

Diferentzia: 524 euro

...

Guztira: 3.745 euro

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I. Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legea: 1. eta 2. artikulua; 21. art., alderdi hau abokatuaren laguntzaz baliatuko dela jakinaraziz; 63. eta hur., adiskidetze-ekitaldia egin delako ziurtagiria erantsiz; eta 80. eta hur.

II. Langileen Estatutua, 26. artikulua eta hurrengoak bereziki.

III. Bizkaiko Bulegoetako Hitzarmen Kolektiboa.

Horregatik guztiagatik, GIZARTE-ARLOKO EPAITEGIARI

ESKATZEN DIOT idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta, beharrezkoak diren izapideei jarraituz, alderdiak zitatu ditzala adiskidetze- eta epaiketa-ekitaldietarako. Eta, dagokionean, epaia eman dezala, demanda baietsi eta demandatuari honako kondena hau ezarriz: demandatzaileari 3.745,71 € ordaintzea, eta interesengatik kopuru horren % 10 urteko, diru-kopurua ordaindu behar zenetik. Hori ez da eragozpen izango azken konklusioetan zehazten den kopururako. Bidezko baita.

BEREBAT DIOT epaiketarako frogabide hauek erabili nahi ditudala:

ALDERDIEI GALDEKETA EGITEA, demandatuari ohartaraziz ezen, agertu ezean, aitortutzat jo ahal izango dela.

Demandatuak epaiketa-egunean aurkeztu beharreko AGIRI-FROGA: demandatzailearen azken sei hilabeteetako soldata-ordainagiriak, berak sinatuta; sasoi bereko kotizazio-buletinak; inskribatuta dagoen Matrikula liburua; eta aldi bereko lan-partea.

TESTIFICAL, que se articulará oportunamente.

Por lo que,

SUPLICA que teniendo por propuestos los indicados medios de prueba se sirva admitirlo y proveer lo necesario para su práctica, en el acto de Juicio Oral, sin perjuicio de otros que puedan proponerse.

Por ser todo ello de Justicia que se pide en Bilbao a 28 de octubre de 2011.

LEKUKOTZA-FROGA, dagokion unean proposatuko dena.

Horregatik,

ESKATZEN DUT, frogabideak proposatutzat eman eta onar ditzala, eta ahozko epaiketa-ekitaldian horiek burutzeko beharrezkoa dena agindu dezala. Hori dena ez da eragozpen izango beste frogabide batzuk proposatzeko.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2011ko urriaren 28an.

4. Citación a juicio al FOGASA

AL JUZGADO DE LO SOCIAL NÚMERO 5

Dña. Itziar Marcos, demandante en autos n.º 202/2003 seguidos contra EROSKI BIDAIAK, S.Coop., sobre cantidad, respetuosamente comparezco y, como mejor proceda en Derecho, digo:

Que, con posterioridad a la presentación de la demanda, ha llegado a conocimiento de esta parte que la demandada ha desaparecido (o ha sido declarada insolvente en ejecución contenciosa 231/132 del Juzgado de lo Social n.º 4 de Bizkaia)

Por ello, y en virtud de lo expuesto en el artículo 23.2 de la Ley de Jurisdicción Social, adjunto una copia más de la demanda a fin de que se dé traslado de la misma al Fondo de Garantía Salarial para que éste pueda asumir sus obligaciones legales e instar lo que convenga en Derecho.

Por lo expuesto,

SUPlico AL JUZGADO que, habiendo por presentado este escrito con su copia y copia de la demanda, tenga a bien admitirlo y, en mérito de lo expuesto, acuerde la citación como parte al Fondo de Garantía Salarial a los efectos anteriormente indicados.

Así procede en justicia que pido en Bilbao, a 3 de junio de 2011.

4. Soldatak Bermatzeko Funtsa epaiketara deitzea

GIZARTE ARLOKO 5 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Nik, Itziar Marcos andreak, EROSKI BIDAIK, Koop. E. enpresaren aurkako diru-kopuru bati buruzko 202/2010 auzibide-agirietan demandatzaile naizela, errespetu guztiarekin agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, esaten dut:

Demanda aurkeztu ondoren, jakin dugula demandatua desagertu dela (edo kaudimengabetzat jo dela Bizkaiko Gizarte Arloko 4 zenbakiko Epaitegiko 231/132 auzi-betearaztean).

Horregatik, eta Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 23.2 artikuluan xedatzen denarekin bat, demandaren beste kopia bat eransten dut Soldatak Bermatzeko Funtsari bidaltzeko, hark bere legezko betebeharrak bere gain har ditzan eta zuzenbidean dagokiona eska dezan.

Hori guztia dela eta,

EPAITEGIARI ESKATZEN DIOT idazki hau beronen kopiarekin eta demandaren kopia aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta, azaldutakoaren arabera, Soldatak Bermatzeko Funtsa alderditzat zitzatu dezala, arestian zehaztutako ondorioetarako.

Bidezkoa eta justiziazkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2011ko ekainaren 3an.

5. Subsanación

J.S. n.º 5
Autos n.º: 142/04
Subsanación

AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 5

Jone Tolosa y Mikel Agirre demandantes en las presentes actuaciones; ante este Juzgado de lo Social comparecen y como mejor proceda en Derecho, DICEN:

Que por medio del presente escrito viene a subsanar la demanda origen de las presentes actuaciones en el sentido de indicar respecto de la reclamación de Jone Tolosa que el desglose correcto de la deuda es el que se solicita en la demanda si bien el Acto de Conciliación, por error, se consignó otra cantidad por lo que se limita la reclamación del actor a 2.791,19 €.

Respecto de la reclamación de Mikel Agirre indicar que esta parte desiste de la reclamación de horas extras y mantiene la reclamación de kilometraje, que se desglosa a continuación:

Agosto: 21 días × 9,86 €/día = 207,06 €
Septiembre: 7 días × 9,86 €/día = 69,02 €
Total: 276,08 €

5. Konponketa

Gizarte-arloko epaitegia: 5

Auzia: 142/04

Konponketa

GIZARTE ARLOKO 5 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Jone Tolosak eta Mikel Agirrek, prozesu honetan demandatzaile garen aldetik, gizarte-arloko epaitegi honen aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUGU:

Idazki honen bitartez prozesu honi hasiera eman dion demanda konpon-tzen dugula, adieraziz Jone Tolosaren erreklamazioan zorraren banakatze zu-zena demandan eskatutakoa dela, nahiz eta adiskidetze-ekitaldian, akats baten ondorioz, beste kopuru bat kontsignatu zen. Beraz, demandatzailearen errekla-mazioa 2.791,19 €-koa da.

Mikel Agirreraren erreklamazioari dagokionez, alderdi horrek atzera egiten du aparteko orduen erreklamazioan eta eutsi egiten dio kilometro-ordainaren erreklamazioari, ondoren banakatzen den bezala:

Abuztua: $21 \text{ egun} \times 9,86 \text{ €/eguneko} = 207,06 \text{ €}$

Iraila: $7 \text{ egun} \times 9,86 \text{ €/eguneko} = 69,02 \text{ €}$

Guztira: 276,08 €

reclamando un total de 3.818,36 €

Por lo que, A ESTE JUZGADO DE LO SOCIAL

SUPPLICAN que habiendo por presentado el presente escrito con sus copias, se sirva admitirlo, tener por subsanada la demanda origen de las presentes actuaciones, dando a los Autos el curso que en Derecho corresponda.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 26 de febrero de 2011.

Guztira 3.818,36 € erreklamatzeko dituzte.

Horregatik, GIZARTE-ARLOKO EPAITEGI HONI

ESKATZEN DIOGU: idazki hau eta beronen kopiak aurkeztuz eman eta onar ditzala; konponduzat jo dezala prozesu honi hasiera eman dion demanda, eta zuzenbidean dagokien bidea eman diezaiela ondoren auzibide-agiriei.

Bidezkoa delako eskatzen dugu, Bilbon, 2011ko otsailaren 26an.

6. Ejecución de sentencia sobre cantidad

J.S. n.º: 5
Autos n.º: 212/02

AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 5

NEREA MARTÍNEZ, en nombre y representación de la parte actora en los presentes autos que a su instancia se siguen sobre CANTIDAD; ante este Juzgado de lo Social comparece y como mejor proceda en Derecho, DICE:

Que siendo firme la Sentencia de fecha 5 de noviembre de 2011 dictada en los presentes autos, y no habiendo procedido la empresa condenada al abono de las cantidades que se fijan en el Fallo de la Sentencia, por medio del presente escrito interesa su EJECUCIÓN al objeto de que se embarguen bienes de la condenada en cantidad suficiente para cubrir:

1.º 694,89 € por el concepto de principal objeto de condena, según se desglosa a continuación:

J.I.B.: 265,27 €
A.H.: 429,62 €

2.º 69,49 € por el concepto de intereses devengados desde la sentencia de instancia, a razón del 10% anual, cantidad que se indica provisionalmente y sin perjuicio de ulterior tasación.

6. Diru-kopuru bati buruzko epaia betearaztea

Epaitegia: 5
Auzia: 212/10

GIZARTE ARLOKO 5 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Ni, Nerea Martínez, demandatzailea ordezkatzuz, haren eskariz bideratzen ari diren DIRU-KOPURU BATI buruzko jarduketa hauetan agertzen naiz gizarte-arloko epaitegi honen aurrean, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, esaten dut:

Irmoa izanik jarduketa hauetan emandako epaia, 2011ko azaroaren 5koa, kondenatutako enpresak ez ditu ordaindu epai horren epaitzak ezarritako diru-kopuruak. Horregatik, idazki honen bidez, ESKATZEN DUT EPAITZA hori BETEARAZTEKO, kondenatutako enpresari honako diru-kopuru hauek bermatzeko adina ondasun enbargatuz:

1. 694,89 €, kondenaren kontzeptu nagusi gisa, honela banakaturik:

J.I.B.: 265,27 €
A.H.: 429,62 €

2. 69,49 €, epaia eman zenetik sortutako interesengatik, hau da, urtean % 10. Diru-kopuru hori behin-behinekoa da, tasazioa geroago egingo baita.

3.º 138,98 €, que también provisionalmente se fijan para costas.

Por todo lo cual, AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 5

SUPLICA que habiendo por presentado este escrito con sus copias, se sirva admitirlo y teniendo por interesada la EJECUCIÓN en las presentes actuaciones, acuerde seguir por sus trámites la vía de apremio hasta la total satisfacción de las cantidades indicadas en el cuerpo de este escrito.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao, a 9 de diciembre de 2011.

3. 138,98 €, kostuetarako; hori ere behin-behineko diru-kopurua da.

Hori guztia dela eta, gizarte-arloko epaitegiari

ESKATZEN DIOT, idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta jarduketa hauetan eskatutako BETEARAZTEA kontutan hartuta, egokiak diren izapideen bidez premiamendu-bidea erabaki dezala, idazki honetan zehaztutako diru-kopuruak erabat ordaindu arte.

Bidezkoa delako eskatzen dugu, Bilbon, 2011ko abenduaren 9an.

7. Acto de conciliación sobre despido

A LA SECCIÓN DE CONCILIACIÓN DE LA DELEGACIÓN TERRITORIAL DE TRABAJO DEL GOBIERNO VASCO

Arantxa Lekue, mayor de edad con D.N.I. n.º 78.882.762, con domicilio a efectos de citación en Erandio-45703, Plaza de los Fueros, 3-1.º; ante la Sección de Conciliación comparece y como mejor proceda en Derecho, DICE:

Que, mediante el presente escrito viene a interesar la celebración de ACTO DE CONCILIACION sobre DESPIDO frente a LA PERLA, S.A., a citar en Bilbao-43542, C/ General Concha, 27-2.º; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El conciliante viene prestando servicios por cuenta y orden de la demandada con la categoría de Oficial de 1.ª desde el 2 de septiembre de 2002 y salario de 1.792,67 € mensuales brutos con p.p.

SEGUNDO.— Con fecha 24 de febrero de 2010, la empresa demandada comunicó al trabajador su despido mediante carta, con fecha de efectos del mismo día, alegando la comisión de una falta muy grave contra un compañero.

7. Kaleratzeari buruzko adiskidetze-ekitaldia

EUSKO JAURLARITZAKO LANEKO LURRALDE ORDEZKARITZAKO ADISKIDETZE ATALARI

Nik, Arantxa Lekuek —adinduna; 78882762 zenbakiko NANA; zitzateko helbidea, Erandio 45703, Foruen Enparantza, 3-1— adiskidetze-atalaren aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bitartez kaleratzeari buruzko ADISKIDETZE-EKITALDIA egiteko eskatzen dudala LA PERLA, S.A. ren aurrean —zitzateko helbidea, Bilbo 43542, Concha Jeneralaren kalea, 27-2—. Eskaearen oinarriak hauek dira:

EGITATEAK

LEHENA.— Adiskidetzailleak demandatuarentzat eta haren aginduetara lan egin du, lehen mailako ofizialaren kategoriarekin, 2010eko irailaren 2az gozotik, hilabeteko 1.792,67 €-ko soldata gordina zuela, aparteko ordainsariak barne.

BIGARRENA.— 2010eko otsailaren 24an, demandatutako enpresak, gutun bidez, langileari jakinarazi zion egun horretatik beretik kaleratuta zegoela, lankide baten aurka falta oso larria egiteagatik.

TERCERO.— La carta de despido no reúne los mínimos requisitos exigidos por la ley y jurisprudencia al reflejarse no los hechos sino la calificación jurídica de los mismos.

CUARTO.— Por lo expuesto, el despido debe calificarse como nulo o subsidiariamente improcedente.

La presente papeleta de conciliación tiene por objeto que la empresa se avenga a:

RECONOCER que el despido debe ser calificado como Nulo o subsidiariamente Improcedente;

ACCEDER a la readmisión del conciliante en idénticas condiciones a las ostentadas en el momento inmediatamente anterior al cese, con abono de los salarios de tramitación devengados o, subsidiariamente al abono de la indemnización legal de cuarenta y cinco días de salario por año de servicio, con el límite legal.

DE LA SECCIÓN DE CONCILIACIÓN SOLICITA que, habiendo por presentado este escrito con sus copias, se sirva admitirlo, disponer la celebración del acto de conciliación y citar de comparecencia a las partes en el día y hora señalados al efecto.

Por ser todo ello de Justicia que se pide en Bilbao a 10 de marzo de 2011.

HIRUGARRENA.— Kaleratze-gutunak ez ditu betetzen legeak eta jurisprudentziak eskatutako gutxieneko betekizunak, ez baitira egitateak agertzen, haien kalifikazio juridikoa baizik.

LAUGARRENA.— Adierazitakoaren arabera, kaleratzea bidegabekotzat jo behar da.

Adiskidetzeko orri honen helburua da enpresak abenikoa egitea honi buruz:

AITORTZEA kaleratzea bidegabea dela;

ONARTZEA adiskidetzaillea berronartu behar duela kaleratzearen aurreko unean zeuzkan baldintza berberetan, izapidetze-aldiko soldata ordainduz, edo, subsidiarioki, lan-urte bakoitzeko 33 egunen soldatako legezko kalte-ordaina ordaintzea, legeak ezarritako mugarekin.

ADISKIDETZE ATALARI ESKATZEN DIOT idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, adiskidetze-ekitaldia egiteko agindu dezala, eta alderdiak zitatu ditzala horretarako zehazten den egun eta orduan ager daitezen.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2011ko martxoaren 10ean.

8. Demanda sobre despido

AL JUZGADO DE LO SOCIAL DE BIZKAIA QUE POR TURNO CORRESPONDA

Markel Crespo, mayor de edad con D.N.I. n.º 15.726.985, con domicilio a efectos de citación en Erandio-47258, Plaza San Agustín, 3-1.º; ante el Juzgado de lo Social comparece y como mejor en Derecho proceda, DICE:

Que por medio del presente escrito formula demanda sobre DESPIDO frente a U.T.E. SALMENTA a citar en Abanto y Zierbena-420358, Polígono Industrial El Campillo, Parcela E-F-3; en base a los siguientes

HECHOS

PRIMERO.— El actor viene prestando servicios por cuenta y orden de la demandada con la categoría de Oficial de 1.ª desde el 4 de marzo de 2002 y salario de 16.695,41 € anuales brutos con p.p.

SEGUNDO.— Con fecha 9 de octubre de 2001 el actor firmó con la empresa FRENOS GORRIA, S.L. un contrato de trabajo de duración determinada por fin de obra o servicio, cuyo objeto era atender el exceso de producción derivado del pedido n.º TX 133 de nuestro cliente F.M.S., S.A. debiendo realizar las labores de remachado de piezas.

8. Kaleratzeari buruzko demanda

TXANDAZ DAGOKION BIZKAIKO GIZARTE-ARLOKO EPAITEGIARI

Nik, Markel Crespok —adinduna; 15726985 zenbakiko NANA; eta zitatzeko helbidea, Erandio 47258, Foruen Plaza, 3.1—, gizarte-arloko epaitegiaren aurrean agertu, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bidez KALERATZE BATI BURUZKO demanda jartzen dudala, UTE SALMENTAren aurka —zitatzeko helbidea, 420358 Abanto-Zierbena, El Campillo industrialdea, E-F-3 partzela—, honako hauek oinarritzat hartuta:

EGITATEAK

LEHENA.— Auzi-jartzaileak demandatuarentzat eta haren aginduetara lan egiten du, lehen mailako ofizialaren kategoriarekin, 2002ko martxoaren 4az geroztik, urteko 16.695,41 €-ko soldata gordina duela, aparteko pagak barne.

BIGARRENA.— 2001eko urriaren 9an, auzi-jartzaileak, FRENOS GORRIA, S.L. enpresarekin, lan edo zerbitzu jakineko aldi baterako lan-kontratu bat sinatu zuen, gehiegizko ekoizpenari erantzuteko. Gehiegizko ekoizpen hori F.M.S., S.A.k egindako TX.133 zenbakiko eskaeraren ondorioz sortu zen, eta bete beharreko lana piezak errematxatzea zen.

TERCERO.— Con fecha de efectos al día 19 de julio de 2002 el actor recibe comunicación escrita por la que la empresa le comunica el cese en la prestación de servicios alegando la finalización del contrato suscrito.

Si bien una conocida doctrina del Tribunal Supremo —y en lo menester, del Tribunal Constitucional— considera subsanable la falta de constitución de los depósitos (STS 30 de enero de 2002 que cita SS y Autos del TC, entre ellas STC 175/1990, de 12 de noviembre), no así por lo que se refiere a toda falta de consignación de la cantidad objeto de condena (STS 11 de diciembre de 2002, que cita anteriores SS. casacionales, y doctrina del TC, como la STC 173/93, de 27 de mayo, y 343/1993, de 22 de noviembre).

CUARTA.— Por lo tanto, se solicita se desestime el recurso de reposición formulado de contrario.

Por lo expuesto, DEL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 1

SUPLICA que habiendo por presentado este escrito con sus copias se sirva admitirlo y tener por impugnado el recurso de reposición planteado de contrario y previos los trámites oportunos, se desestime el recurso de reposición interpuesto por la demandada, confirmándose en todos sus extremos el Auto de fecha 9 de diciembre de 2003.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 16 de febrero de 2012.

Legearen 91. artikuluan sartzen den prozesu bat. Artikulu horrek 1.803 eurotik gorako kopuruen kasuan bakarrik baimentzen du errekurtoa, eta hemen zenbateko horretara heltzen ez den kopuru bat eskatzen da.

HIRUGARRENA.— Aurkaratzaileak bere errekurtoa Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 199. artikuluan oinarritzen du. Artikulu horrek akatsak konpontzeko epe bat ezartzen du kondenaren kontsignazioa edo bermea nahikoa izan ez denerako.

Nahiz eta Auzitegi Gorenaren doktrina ezagun batek —Konstituzio Auzitegiarena ere bada— konpongarriztat jo gordailua ez eratu izana (2002ko urtarrilaren 30eko Auzitegi Gorenaren epaia, Konstituzio Auzitegiaren epai eta autoak aipatzen dituen; besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 1990eko azaroaren 12ko 175/1990 Epaia), ez du konpongarriztat jotzen kondenaren zenbatekoa ez kontsignatzea (Auzitegi Gorenaren 2002ko abenduaren 11ko epaia, kasazioan emandako aurreko epaiak eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina aipatzen dituen; besteak beste, 173/93, maiatzaren 27koa, eta 343/1993, azaroaren 22koa).

LAUGARRENA.— Hori guztia dela eta, eskatzen dut epaitegiak ezets dezala aurkariak aurkeztutako errekurtoa.

Azaldutakoagatik, Gizarte-arloko epaitegiari **ESKATZEN DIOT**:

Idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta horrela, aurkariaren berraztertze-errekurtoa aurkaratutzat emanda, bidezko diren izapideei jarraituz, demandatuaren errekurtoa ezetsi eta 2011ko abenduaren 9ko autoa eduki guztietan berrets dezala.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko otsailaren 16an.

19. Anuncio de recurso de suplicación

J.S. n.º: 8
Autos n.º: 824/12
Anuncio Recurso Suplicación

AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 8 DE BIZKAIA

Markel Zugasti, parte demandante en los presentes autos que se siguen sobre PRESTACION; ante el Juzgado de lo Social comparece y, como mejor proceda en Derecho, DICE:

Que habiendo sido notificada la Sentencia dictada en las presentes actuaciones y considerándolo, dicho sea con el debido respeto, contrario a derecho y perjudicial para los intereses de esta parte, por medio del presente escrito anuncia RECURSO DE SUPLICACIÓN para ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, designando como letrada para la formalización de dicho Recurso a Jone Galarraga Azpiazu, con domicilio a efectos de notificaciones en 47015-Lekeitio, C/ Alameda Rekalde, 57 Bajo.

Por lo expuesto, AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 8

SUPLICA que, habiendo por presentado este escrito con sus copias, se sirva admitirlo, y teniendo por anunciado en tiempo y forma legales Recurso de Suplicación, admitirlo y poner los Autos a disposición de la letrada designado para su formalización.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 27 de febrero de 2012.

19. Erregutze-errekurtsoa iragartzea

Gizarte-arloko epaitegia: 8
Auzia: 824/03
Erregutze-Errekurtsoa Iragartzea

BIZKAIKO GIZARTE ARLOKO 8 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Nik, Markel Zugastik, PRESTAZIOARI buruzko prozesu honetan alderdi demandatzaile naizela, gizarte-arloko epaitegiaren aurrean agerturik, esaten dut:

Prozesu honetan emandako epaia jakinarazi didatela, eta, begirune osoz esanda, zuzenbidearen kontrakoa dela eta nire interesen aurka doala iritzita, idazki honen bitartez ERREGUTZE-ERREKURTSOA iragartzen dudala. Errekurtsoa Euskadiko Auzitegi Nagusiaren aurrean izapidetu beharko da; errekurtsoa formalizatzeko, Jone Galarraga Azpiazu abokatua izendatzen dut —jakinarazpenetarako helbidea, 47015 Lekeitio, Rekalde Zumarkalea 57, behea—.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Arloko 8 zenbakiko Epaitegiari

ESKATZEN DIOT idazki hau eta beronen kopiak aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta, legearen arabera garaiz eta forma egokian erregutze-errekurtsoa iragarritzat jota, onar dezala errekurtso hori eta autoak izendatu dudan abokatuaren eskura jar ditzala, hark errekurtsoa formalizatzeko.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko otsailaren 27an.

20. Formalización de recurso de suplicación

J.S. n.º: 5

Autos n.º: 327/11

Recurso n.º: 164/11

AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º
PARA ANTE EL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA
DEL PAÍS VASCO

Amaia Arriaga Tolosa, Letrada del Ilustre Colegio de Bizkaia y con domicilio a efectos de notificación en Bilbao-48579, C/ Bidezahar, 62 Bajo, designada en el presente procedimiento; ante la Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, comparece y como mejor proceda en Derecho, DICE:

Que por medio del presente escrito procedo a FORMALIZAR EL RECURSO DE SUPLICACIÓN contra la Sentencia dictada en las presentes actuaciones; formulando al efecto los siguientes

ANTECEDENTES

Nos remitimos a los obrantes en Autos, evitando, de esta manera, una reiteración innecesaria.

20. Erregutze-errekurtsoa formalizatzea

Gizarte-arloko epaitegia: 5

Auzia: 327/11

Errekurtsoa: 164/11

GIZARTE ARLOKO 5 ZENBAKIKO EPAITEGIARI EUSKADIKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIARENTZAT

Ni, Amaia Arriaga Tolosa, Bizkaiko Bazkun Ohoretsuko letratu izendatua prozesu honetan —jakinarazpenetarako helbidea, Bidezahar 62 behea, 48579 BILBO—, Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiko Salaren aurrean agertzen naiz, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bidez ERREGUTZE-ERREKURTSOA FORMALIZATZEN dudala, auzi hauetan emandako epaiaren aurka, horretarako honako hauek adieraziz:

AURREKARIAK

Auzibide-agirietan agertzen direnak kontuan har daitezela ESKATZEN DUGU, alferrikako errepikapena saihesteko.

FUNDAMENTOS PROCESALES BÁSICOS

I. El art. 191 de la vigente Ley de Jurisdicción Social, aprobada por Ley 36/2011, de 10 de octubre, fija el recurso de suplicación.

II. Los arts 194 y 195 disponen que el recurso deberá anunciarse en el plazo de cinco días y formularse en el de diez, a partir del siguiente a la notificación proveído de la puesta a disposición del Letrado recurrente de los autos, plazos que han sido, cumplidos en el presente caso como puede observarse en autos.

III. De conformidad con lo establecido en el art. 196 del ya citado Texto Procesal Laboral, se intentan razonar con la debida claridad y precisión las razones en que se funda el presente recurso, acompañándose asimismo las copias preceptivas.

IV. El escrito lleva la firma de letrado, que implícitamente, resulta de obligado cumplimiento, a tenor de lo dispuesto en el art. 195 del mismo texto legal.

MOTIVOS DEL RECURSO

PRIMERO.— Al amparo de lo dispuesto en el art. 193 b) de la Ley de Jurisdicción Social para revisar los hechos declarados probados, a la vista de las pruebas documentales y periciales practicadas.

Se interesa la adición de un nuevo hecho probado con el siguiente tenor literal:

OCTAVO.— El actor manipula manualmente una media de 1.040 cajas por día. Las cajas tienen un peso medio de 9,66 kg/caja, siendo el peso aceptable, según los Servicios de Prevención de la empresa, de 5,29 kg. El actor trabaja a temperatura controlada entre 6 y 10°.

Los Documentos en los que se basa esta adición son la Evaluación de la Carga Física (Manipulación Manual de Cargas), obrante en Autos al Folio 69, 70 y 71 y el propio cuestionario realizado por el Técnico de Prevención, Sr. Ocariz, en los Folios 72 a 75.

Es esencial que dichos datos aparezcan en los Hechos Probados porque son las características del puesto de trabajo del actor, esto es, preparador de pedidos de productos frescos. Lo contenido en la adición pretendida resulta sin ningún género de duda de los documentos a los que hemos hecho referencia.

ONARRIZKO ARRAZOIBIDE PROZESALAK

I. Indarrean dagoen Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 191. art. (2011ko urriaren 10eko 36/2011 Legeak onetsia), erregutze-errekurtsuari buruzkoa.

II. 194. eta 195. artikuluek diote errekurtsoa bost eguneko epean iragarri behar dela, eta 10 eguneko epean formalizatu, abokatu errekurtsogileari autoak bere esku uzten direla dioen probidentzia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan, epeak bete dira, autoetan agertzen den bezala.

III. Aipaturiko gizarte-arloko testu prozesalaren 196. artikuluek dioenaren arabera, errekurso hau oinarritzen duten arrazoiak behar adinako argitasun eta zehaztasunez argudiatzeko saioa egiten da, beharrezko diren kopiak ere erantsiz.

IV. Idazkiak abokatuaren sinadura darama —nahitaezko betebeharra da hori, inplizituki—, lege-testu beraren 195. artikuluek dioenaren arabera.

ERREKURTSOAREN ARRAZOIAK

LEHENA.— Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 193. b) artikuluan oinarrituta, frogatuzat jo diren egitateak berrikusteko, egindako agiri-froga eta peritu bidezko frogen ondorioz.

Frogatuzat jotzen den egitate berri bat eransteko ESKATZEN DUT; honela, hitzez hitz:

ZORTZIGARRENA.— Auzi-jartzaileak batez beste 1.040 kaxa erabiltzen ditu egunero, eskuz. Kaxa bakoitzak, batez beste, 9,66 kg pisatzen du, enpresako prebentzio-zerbitzuen arabera pisu onargarria 5,29 kg izanik. Auzi-jartzaileak 6°C-tik 10°C-ra bitarteko tenperatura kontrolatuan egiten du lan.

Eranste hau oinarritzeko dokumentuak hauek dira: *Karga Fisikoaren Ebaluaketa (Kargak eskuz erabiltzea)*, auzibide-agirien 69., 70. eta 71. folioetan; eta prebentzio-teknikaria den Ocariz jaunak egindako galdeketa, 72.etik 75.era bitarteko folioetan.

Funtsezkoa da datu horiek Egitate Frogatuetan agertzea, auzi-jartzailearen lanpostuaren ezaugarriak direlako: produktu freskoen eskaera-prestatzailearen lanpostuarenak. Eskatzen den eransketa, inolako zalantzarik gabe, aipatutako dokumentuen ondorioa da.

SEGUNDO.— Al amparo del artículo 193.c) de la Ley de Jurisdicción Social para examinar las infracciones de normas sustantivas o de la Jurisprudencia, denunciándose la infracción del artículo 136 de la Ley General de Seguridad Social, en relación con el artículo 137.1.b) y a) del mismo texto legal.

El artículo 136.1 del Texto Refundido aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1994, de 20 de junio, en la redacción dada a dicho precepto por el artículo 34.1 de la Ley 42/1994, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, dispone textualmente: *En la modalidad contributiva, es invalidez permanente la situación del trabajador que, después de haber estado sometido al tratamiento prescrito y de haber sido dado de alta médicamente, presenta reducciones anatómicas o funcionales graves, susceptibles de determinación objetiva y previsiblemente definitivas, que disminuyan o anulen su capacidad laboral. No obsta a tal calificación la posibilidad de recuperación de la capacidad laboral del inválido, si dicha posibilidad se estima médicamente como incierta o a largo plazo.*

Como ha venido repitiendo la jurisprudencia son tres las notas características que definen el concepto legal de la invalidez permanente: 1) Que las reducciones anatómicas o funcionales sean objetivables («susceptibles de determinación objetiva»), es decir, que se puedan constatar médicamente de forma indudable, no basándose en la mera manifestación subjetiva del interesado. 2) Que sean «previsiblemente definitivas», esto es, incurables, irreversibles; siendo suficiente una previsión seria de irreversibilidad para fijar el concepto de invalidez permanente, ya que, al no ser la Medicina una ciencia exacta, sino fundamentalmente empírica, resulta difícil la absoluta certeza del pronóstico, que no puede emitirse sino en términos de probabilidad. Por eso, el precepto aludido añade que *no obstará a tal calificación la posibilidad de recuperación de la capacidad laboral del inválido si dicha posibilidad se estima médicamente como incierta o a largo plazo*, y por eso también el artículo 143.2 del mismo Texto Refundido prevé la posibilidad de revisión de las declaraciones de invalidez por mejoría. Y 3) que las reducciones sean graves, desde la perspectiva de su incidencia laboral, hasta el punto de que disminuyan o anulen su capacidad laboral en una escala gradual que va desde el mínimo de un 33 por 100 de disminución en su rendimiento normal para la profesión habitual —incapacidad permanente parcial—, o la que impide la realización de todas o las fundamentales tareas de la misma —incapacidad permanente total—, hasta la abolición de la capacidad del rendimiento normal para cualquier profesión u oficio que el mercado laboral pudiera ofrecer —incapacidad permanente absoluta—.

BIGARRENA.— Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 193. c) artikuluan oinarrituta, arau substantiboen edo Jurisprudentziaren falta aztertzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 136. artikulua eta salatuz, legetestu bereko 137.1 b) eta a) artikulua araberaz.

1994ko ekainaren 20ko 1/1994 lege-gintzako errege-dekretuaren bidez onarturiko Testu Bateratuko 136.1 artikulua, artikulua horri Neurri fiskal, administratibo eta gizarte-arloko buruzko 1994ko abenduaren 30eko 42/1994 Legearen 34.1 artikulua emandako idazkeran, hitzez hitz, hau dio: «Ekarpeneko aldaeran, langilea baliaezintasun iraunkorreko egoeran dela jotzen da baldin eta, jarritako tratamendua segitu eta alta medikoa eman ondoren, langaitasuna gutxitzen edo deuseztatzen dioten murrizketa anatomiko edo funtzional larriak ageri baditu, objektiboki neurtu daitezkeenak eta zantzu araberaz behin betikoak. Ez du kalifikazio hori eragotziko baliaezintasun lan-gaitasuna berreskuratzeko aukera izateak, medikuntzaren aldetik zalantzako edo epe luzerako irizten bazaio aukera horri».

Jurisprudentziak behin eta berriro errepikatu duen bezala, ezintasun iraunkorraren legeko kontzeptua hiru ezaugarri definitzen dute: 1) Murriztapen anatomiko edo funtzionalak objektibagarriak izatea («susceptibles de determinación objetiva»), hots, medikoki zalantzarik gabe egiazta daitezkeenak, interesatuaren adierazpen subjektibo hutsean oinarritu gabe. 2) Ustez behin betikoak izatea («Previsiblemente definitivas»), hots, sendaezinak, itzulezinak. Nahikoa da itzulezintasun aurreikuspen serioa izatea ezintasun iraunkorreko kontzeptuan egoteko; medikuntza ez baita zientzia zehatza, funtsean enpirikoa baizik. Hori dela eta, zaila da pronostikoa erabat ziarra izatea, eta probalea izaten da. Horregatik, aipaturiko artikulua erabatu du «Ez du kalifikazio hori eragotziko baliaezintasun lan-gaitasuna berreskuratzeko aukera izateak, medikuntzaren aldetik zalantzako edo epe luzerako irizten bazaio aukera horri», eta horregatik halaber testu bateratu bereko 143.2 artikulua aurreikusten du elbarritasun-deklarazioak berrikustea hobekuntza dagoenean. Eta 3), murriztapenak larriak izatea, lanean duten eraginaren ikuspegitik, lan-gaitasuna gutxitu edo ezabatu arte, honako eskala gradualaren arabera: gutxienez ohiko lanbidetarako errendimendu normalaren % 33ko gutxitzea —ezintasun iraunkor partziala—, edo bere zeregin guztiak edo oinarritzekoak betetzea ezinezko egiten duena —ezintasun iraunkor osoa—, lan-merkatuak eskaini dezakeen edozein lanbidetan errendimendu normala edukitzeko gaitasuna ezabatu arte —ezintasun iraunkor absolutua—.

El grado de total que es el que solicita esta parte en los presentes autos viene definida como la que inhabilita al trabajador para el ejercicio de su profesión habitual.

El actor presenta las siguientes lesiones:

Espondilosis y hernia discal lumbar L5-S1, intervención quirúrgica por inestabilidad de L5-S1 mediante artrodesis L5-S1, livedo reticular, lesiones que se recogen en los Hechos Probados Sexto y Séptimo.

La Jurisprudencia ha sentado con reiteración, los criterios del precepto que tipifica la Incapacidad Permanente Total, manteniendo que la realización de una actividad laboral, por liviana que sea, incluso las sedentarias, sólo puede consumarse mediante la asistencia diaria al lugar de trabajo, permanencia en el mismo durante toda la jornada laboral, debe poder realizarse con un mínimo de profesionalidad, rendimiento y eficacia, actuando de acuerdo con las exigencias, de todo orden, que comporta la integración en una empresa, en régimen de dependencia de un empresario, dentro de un orden preestablecido y en interrelación con los quehaceres de otros compañeros, por cuanto no es posible pensar que en el amplio campo de las actividades laborales exista alguna en la que no sean exigibles esos mínimos de dedicación, diligencia y atención que son indispensables en el más simple de los oficios y en la última de las categorías profesionales.

Y en cuanto a la valoración de las lesiones, se ha declarado probado que tras un largo periodo de rehabilitación el actor presenta como secuelas lumbalgia crónica, irradiación ciática bilateral, parestesias a nivel del nervio ciático externo y limitación de la flexión anterior de la columna lumbar.

Su puesto de trabajo en la Cooperativa Erribera es del de «puesta de pedidos de fruta/productos frescos». En la Evaluación de Riesgos Específicos del puesto (Doc. n.º 69,70 y 71) y concretamente en la evaluación de la carga física (Doc. n.º 69 y reverso) se establece que los trabajadores mueven más de 10.000 kgs. diariamente, explicando en dicho documento cómo se manipula la carga: se explicita que se trata de una manipulación *manual* de carga, como el propio título del documento indica, y se detalla en el reverso del documento la manipulación de las cargas. En ese reverso existe un gráfico que nos muestra los movimientos que tiene que hacer el preparador en su trabajo diario. En el documento n.º 72 al 75 de los que obran en Autos y que se trata del cuestionario realizado por el Técnico del Área de Prevención sobre el puesto de trabajo que ocupa el actor, nos indica que para realizar el trabajo existe torsión/flexión del tronco de 90.º («muy girado»), que la actividad exige esfuerzos físicos de-

Alderdi honek auto hauetan ezintasunaren maila osoa eskatzen du; langilea bere ohiko lanbidean aritzeko ezgaitzen duena.

Auzi-jartzaileak honako lesio hauek ditu (seigarren eta zazpigarren egitateetan jasoak daude):

Espondilosia eta gerriko hernia diskala L5-S1, ebakuntza L5-S1en eze-gonkortasunagatik L5-S1eko artrodesis bidez, livedo reticularis

Jurisprudentziak behin baino gehiagotan errepikatu ditu ezintasun iraunkor osoa tipifikatzen duen artikulua irizpideak. Horren arabera, lan-jarduerabat, arina izan arren —sedentarioak barne— bakarrik gauza daiteke egunero lantokira joanez, gutxieneko profesionaltasun, errendimendu, eta eraginkortasunez arituz, enpresa batean egoteak dakartzan askotariko eskakizunen arabera, enpresaburu baten menpe, aldez aurretik ezarritako ordena baten barruan, eta beste lankideen zereginekin erlazionatuz. Ezin baita pentsatu lan-jardueren esparru zabalean gutxieneko dedikazio eta arreta horiek eskatzen ez dituenik dagoenik, ezinbestekoak baitira ogibide sinpleenean eta azken lanbide kategorian ere.

Lesioen balorazioari dagokionez, frogatutzat jo da, errehabilitazio-aldi luzearen ondoren, auzi-jartzaileak arrasto gisa dituela lunbalgia kronikoa, alde bietako irradiazio ziatikoa, parestesiak kanpoko nerbio ziatikoaren mailan eta gerriko kolumnaren aurreko flexioaren mugapena.

Bere lanpostua, Erribera kooperatiban, «fruta-eskariak / produktu freskoak jartzea» da. Postuko arrisku espezifikoaren ebaluaketan (69., 70. eta 71. dokumentuak), eta zehazki karga fisikoaren ebaluaketan (69. dokumentua eta atzealde) ezartzen da langileek egunero 10.000 kg baino gehiago mugitzen dituztela, eta karga nola erabiltzen den esplikatzen da: esplizituki esaten da *eskuz* erabiltzen dela karga, dokumentuaren izenburuak dioen moduan, eta dokumentuaren atzealdean zehazten da. Atzealde horretan dagoen grafikoak erakusten dizkigu prestatzaileak bere eguneroko lanean egin beharreko mugimenduak. Auzibide-agirietan dauden 72. dokumentutik 75.era bitartekoak (auzi-jartzailearen lanpostuari buruz Prebentzio Arloko teknikariak egindako galdeketak) erakusten digu lana egiteko gerria 90.º makurtu beharra dagoela («oso makurtua»), aktibitate horrek esfortzu fisiko ohikoegiak edo luzeegiak eskatzen dituela, bereziki bizkarrezurrari eragiten diotenak; gehiegizko altuera da-

masiados frecuentes o prolongados en los que interviene particularmente la columna vertebral., que existe una altura excesiva para la manipulación de cargas, que la frecuencia de la manipulación es de 2,5 cajas por minuto y durante más de 2 horas y menos de 8 diarias.

En el Folio 75 de los que obran en Autos los Servicios de Prevención de la empresa establecen la fórmula para la determinación del peso aceptable, estableciéndose en 5,29 kgs, mientras que el actor manipula en su puesto de trabajo un promedio de 9,66 kgs, muy por encima de ese peso aceptable. De hecho en la valoración del puesto de trabajo (Doc. n.º 67) los esfuerzos físicos y los riesgos son los factores más valorados.

Otro dato a tener en cuenta son las condiciones ambientales en las que el actor realiza su trabajo, esto es, en temperatura controlada no superior a 10º y no inferior a 6º en la zona de recepción y en las cámaras frigoríficas entre 2º y 6º (Doc. 77, 74, 72 reverso, 69 reverso, y 67). Estas condiciones de temperatura especiales dada la naturaleza de los productos que manipula (producto fresco y fruta) están totalmente contraindicadas para su estado de salud, ya que el músculo no acaba de calentarse nunca, haciendo que cada vez que se realiza un esfuerzo físico el movimiento sea doloroso.

Respecto a cómo se realiza la manipulación de las cargas es evidente que se realiza de forma manual, es decir, sin intervención de elementos mecánicos que puedan ayudar, tal y como se expresa gráficamente en el Documento n.º 69 reverso. En el Documento 69 se indica que cuentan con traspaletas eléctricas con uñas elevadoras, que sirven para trasladar los palets, pero no las cajas individuales. Los palets son las plataformas donde se ponen las cajas; estos pueden pesar incluso toneladas, pero lo que mueven manualmente los trabajadores del puesto de trabajo son las cajas, que pesan entre 2 y 23 kgs. Es patente el importante esfuerzo físico que produce este puesto de trabajo: esfuerzo que es especialmente valorado en la Valoración de Puestos de Trabajo, esfuerzo que requiere en el Control de Riesgos Específicos el apartado más importante, esfuerzo que supone la manipulación de 4, 37 kgs por encima del promedio del peso aceptable (9,66 menos 5,29 kgs).

Habiéndose declarado probado que el actor padece lumbalgia crónica, irradiación ciática bilateral, parestesias a nivel del nervio ciático externo y limitación de la flexión anterior de la columna lumbar y que todos los informes médicos de la Clínica Universitaria de Navarra, centro médico en el que fue tratado el actor e intervenido quirúrgicamente, que consta en Autos en los Doc. n.º 41 a 60, se recomienda como tratamiento no coger pesos. Y los informes del médico de empresa, Doc. n.º 62 a 65, igualmente establecen in-

goela kargak erabiltzeko; eta karga-erabileraren maiztasuna 2,5 kaxa minutuko dela, egunero 2 ordu baino gehiagoz eta 8 ordu baino gutxiagoz.

Auzibide-agirietako 75. folioan, enpresako prebentzio-zerbitzuek pisu onargarria zehazteko formula ezartzen dute: 5,29 kg. Bitartean, auzi-jartzaileak bere lanpostuan batez beste 9,66 kg. erabiltzen ditu; pisu onargarria erruz gainditzen du, beraz. Gainera, lanpostuen balioespenean (67. dokumentua), esfortzu fisikoak eta arriskuak dira gehien balioesten diren eragileak.

Kontuan hartu beharreko beste datu bat da auzi-jartzaileak zer giroan egiten duen lana, hots, harreragunean 6°C eta 10°C bitarteko temperatura kontrolatuan, eta kamera hozkailuetan 2°C eta 6°C bitartekoan (77.-74. dokumentuak, 72 atzekaldea, 69 atzekaldea, eta 67). Temperatura berezi hori manipulatzeko dituen produktuen izaerak eskatzen du (produktu freskoak eta fruta dira), eta zeharo desegokia du osasunerako; izan ere, giharra ez da inoiz erabat berotzen, eta, horregatik, esfortzu fisikoa egiten duen bakoitzean mugimendua mingarria da.

Karga erabiltzeko moduari buruz, nabaria da eskuz egiten dela, hots, tresna mekanikoen laguntzarik gabe, 69 atzealdeko Dokumentuan grafikoki adierazten den bezala. 69 Dokumentuan adierazten da langileek azazkal jantziak dituzten traspaleta elektrikoak dituztela, paletak mugitzeko balio dutenak, baina ez kaxa indibidualak mugitzeko. Paletak kaxak jartzeko plataformak dira; tonak pisatzera hel daitezke, baina lanpostu horretan ari diren langileek eskuz mugitzen dituztenak kaxak dira, 2 kilotik 23 kilora bitarteko pisua dutenak. Nabarmena da lanpostu honek eskatzen duen ahalegin fisikoa; Lanpostuen Balioespenean bereziki aintzat hartzen da ahalegin hori, eta Arrisku Espezifikoaren Kontrolean arlo nagusia hartzen du. Ahalegin horrek batez besteko pisu onargarria baino 4,37 kg erabiltzea dakar (9,66 ken 5,29 kg).

Frogatutzat jotzen da auzi-jartzailearen lunbalgia kronikoa, alde bietako irradiazio ziatikoa, kanpoko nerbio ziatikoa parestesiak eta gerriko kolumnaren aurreko flexioaren mugapena; Nafarroako Unibertsitate Klinikako (auzi-jartzaileak tratamendua eta ebakuntza jasandako zentro medikoa) txosten mediko guztiek (auzibide-agirietan, 41.etik 60.era bitarteko daokumentuetan agertzen dira) pisurik ez hartzea gomendatzen dute tratamendu gisa. Enpresako sendagilearen txostenek diote, halaber (62.etik 65.era bitarteko doku-

compatibles las lesiones del actor con las características de su puesto de trabajo.

Asimismo su puesto de trabajo implica, como hemos visto, manipulación continua de pesos y esta manipulación de cargas es la actividad principal del trabajo que realiza el actor por lo que procedería la estimación de la demanda declarando al actor afecto de una Incapacidad Permanente Total.

Por lo expuesto,

SUPLICA AL JUZGADO DE LO SOCIAL que teniendo por presentado este escrito en tiempo y forma con sus copias, ordene su incorporación al expediente de su razón y ordene que se remita todo ello, al Tribunal que ha de conocer el recurso, y, en su consecuencia:

DE LA SALA DE LO SOCIAL DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO SUPLICA que, teniendo por presentado este escrito con sus copias y por formalizado el Recurso de Suplicación, lo admita y en virtud de lo alegado en el cuerpo de este escrito, con revocación de la de instancia, dicte nueva Sentencia por la que se declare a la actora afecto de Invalidez Permanente Total derivada de enfermedad común, condenando a las codemandadas a estar y pasar por las consecuencias de dicha declaración.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 15 de noviembre de 2012.

mentuak), auzi-jartzailearen lesioak ez direla bateragarriak bere lanpostuaren ezaugarriekin.

Lanpostuak, esandako moduan, etengabe pisua erabiltzea dakar, eta karga erabiltze hori da auzi-jartzailearen jarduera nagusia. Horregatik, demanda baia-tsi beharko litzateke, eta auzi-jartzailea ezintasun iraunkor osoko egoeran dagoela deklaratu.

Azaldutakoagatik,

GIZARTE ARLOKO EPAITEGIARI ESKATZEN DIOT idazki hau bere kopiekin garaiz eta forma egokian aurkeztutzat emanik, dagokion espedienteari eransteke agindu dezala; agindu dezala hori guztia errekurtsua jasoko duen auzitegiari bidaltzea, eta horren ondorioz:

EUSKADIKO AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALARI ESKATZEN DIOT idazki hau bere kopiekin aurkeztutzat eta erregutze-errekurtsua jarritzat eman eta onar ditzala, eta, idazki honetan alegatutakoaren arabera, instantziakoa errebokatuz, epai berria eman dezala auzi-jartzailea gaitasun arruntetik eratorritako ezintasun iraunkor osoko egoeran dagoela deklaratzat eta demandatukideak deklarazio horren ondorioak betetzera kondenatuz.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko azaroaren 15ean.

21. Impugnación de recurso de suplicación

J.S. n.º 6
Autos n.º 530/11
Rec. n.º 202/11
Impugnación R. Suplicación

AL JUZGADO DE LO SOCIAL N.º 6
PARA ANTE LA SALA DE LO SOCIAL
DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO

Joseba Mercero, parte demandante en el presente procedimiento que a su instancia se sigue frente a la empresa METALES DEL CANTÁBRICO, S.A.; ante el Juzgado de lo Social para ante la Sala de lo Social del Tribunal Superior comparece y DICE:

Que, por medio del presente escrito y en el tiempo conferido a tal efecto viene a IMPUGNAR el recurso interpuesto de contrario; en base a las siguientes

ALEGACIONES

PRIMERA.— La parte contraria exclusivamente en los dos motivos de suplicación pretende la modificación de los hechos declarados probados en la

21. Erregutze-errekurtsoa aurkaratzea

Gizarte-arloko epaitegia: 6
Auzia: 530/11
Errekurtsoa: 202/11
Erregutze-errekurtsoa aurkatzea

GIZARTE ARLOKO 6 ZENBAKIKO EPAITEGIARI EUSKADIKO JUSTIZI AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALARENTZAT

Nik, Joseba Mercerok, alderdi demandatzailea METALES DEL CANTÁBRICO, S.A. enpresaren aurkako prozesu honetan, Gizarte Arloko Epaitegiaren aurrean eta Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko Salarentzat, agertu eta ESATEN DUT:

Idazki honen bitartez, eta horretarako emandako epe barruan, kontrakoak jarritako errekurtsoa aurkaratzen dudala, honetan oinarrituz:

ALEGAZIOAK

LEHENA.— Kontrako alderdiak erregutzeko bi arrazoietan eskatzen duen gauza bakarra zera da, instantziako epaian frogatutzat emandako egitateak alda-

Sentencia de instancia, por lo que sin más trámite debiera desestimarse el recurso planteado pues no plantea junto con la pretendida modificación fáctica, vulneración del derecho aplicado en la Sentencia, gestión necesaria para el hipotético éxito del recurso.

La parte recurrente formula dos motivos, procesalmente avalados por el artículo 191 de la Ley de Jurisdicción Social, de 10 de octubre de 2011, por lo que, tratándose de una materia de interés público, debe abordarse prioritariamente la anomalía procesal, pues el recurso debe invocar los preceptos legales que estime infringidos y la forma en que lo han sido, ya que la Sala sólo puede examinar «ex officio» los que conculquen el orden público procesal, sin que sea admisible la vaga e indiscriminada alusión al derecho aplicable sin la cita concreta de la supuesta norma a que la denuncia se contrae, como mínima exigencia formal encaminada a evitar indefensión en la parte recurrida, pues el Tribunal «ad quem» está obligado a adoptar una actitud objetiva y neutral en la controversia, que le impida confeccionar las argumentaciones jurídicas de cualquiera de los contendientes.

Así, lo tiene proclamado reiteradamente el Tribunal Constitucional, y en la Sentencia 23/1992, invocada en otra suya de 13 mayo 1992, 72/1992, afirma que la Constitución no garantiza clase alguna de recurso judicial, sino que tan sólo asegura el acceso a los recursos legalmente previstos siempre que se cumplan y respeten los presupuestos, requisitos y límites que la propia Ley establezca. Respecto a ello, puntualiza esa Sala, que la flexibilidad respecto a defectos secundarios y subsanables en orden a facilitar el principio de tutela judicial proclamado en el artículo 24.1 de la Constitución Española, no puede ser entendida de modo tajante que conduzca «sic et simpliciter» al desconocimiento e ineficacia total de los presupuestos procesales establecidos por las leyes para la admisión y viabilidad de los recursos, en cuanto ello implicaría dejar al arbitrio de las partes unos requisitos establecidos, no por simple capricho ritualista del legislador y los Tribunales, sino para dotar al proceso de las imprescindibles formalidades objetivas que eviten la indefensión y faciliten una absoluta igualdad en orden a la defensa de los legítimos intereses controvertidos.

El más superficial examen de este recurso, evidencia incumplimiento de esos principios procesales, lo que impide su viabilidad así como el análisis de las posibles infracciones en orden al derecho sustantivo, debiéndose imponer la confirmación de la sentencia impugnada.

Los términos en que se presenta el escrito de recurso serían ya de por sí, suficientes para la desestimación del mismo, y ello, por un lado, debido a que sólo va encaminado a la revisión de hechos tenidos por probados, sin plantear

tzea. Beraz, bestelako izapiderik gabe, aurkeztutako errekurtoa ezetsi beharko litzateke, ez duelako, egitateak aldatzeaz gain, epaian aplikaturiko zuzenbidearen urrapenik planteatzen, beharrezkoa izanik hori errekurtoak arrakasta edukitzeko, hala badagokio.

Errekurritzen duen alderdiak bi arrazoi planteatzen ditu, prozesu aldetik 2011ko urriaren 10eko Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 191 artikuluan oinarrituak; beraz, interes publikoko gaia izanik, lehentasunez anomalia prozesala kontuan hartu behar da, errekurtoak urratutzat jotzen dituen artikulua aipatu behar dituelako, eta nola izan diren urratuak adierazi, zeren eta salak, *ex officio*, ordena publiko prozesalaren urrapenak bakarrik azter baititzake. Ez da onargarria aplikatzekoa den zuzenbidea aipatzea, oro har, urratutzat zer arau jotzen den zehaztu gabe. Hori egitea gutxienezko eskakizun formala da errekurritutako alderdiaren defentsa-gabezia ekiditeko, *ad quem* Auzitegiak auzian jarrera objektibo eta neutrala eduki behar baitu, berak alderdien argumentazio juridikoa landu gabe.

Horixe adierazi du askotan Konstituzio Auzitegiak: 23/1992 Epaian —1992ko maiatzaren 13ko 72/1992 Epaian aipatua—, Auzitegiak dio Konstituzioak ez duela inolako errekurto judizialik bermatzen; bakarrik legeak aurreikusitako errekurtoak erabiltzea bermatzen du, legeak ezarritako bete-behar eta mugen arabera. Sala horrek adierazi du, Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluko babes judizialeko printzipioaren arabera, konpon daitezkeen bigarren mailako akatsen aurreko malgutasuna ezin dela ulertu era absolutuan, *sic et simpliciter*, errekurtoak onartu ahal izateko legeetan ezartzen diren bete-behar prozesalak alboratu eta eraginik gabe utziz. Horrek esan nahiko luke ezarritako ukanbeharrak alderdien borondatearen menpe uztea, eta bete-behar horiek ez dira ezarri legegile eta auzitegien apeta erritualistagatik. Haatik, prozesuetan ezinbestekoak dira forma-bete-behar objektiboak, defentsa-gabezia ekiditeko eta erabateko berdintasuna egoteko lehian dauden interes zilegien defentsan.

Errekurto honetan nabarmen ageri denez, printzipio prozesal horiek ez dira betetzen; beraz, errekurtoa bideraezina da, eta horregatik ezin dira zuzenbide substantiboaren urrapenak aztertu, eta aurkaratutako epaia berretsi egin behar da.

Errekurtoa, nola idatzita dagoen ikusirik, ezetsi egin beharko litzateke. Izan ere, frogatutzat jo diren egitateak berrikustea eskatzen da, soil-soilik, arau urrapenik planteatu gabe. Egitate-aldaketa onartuko balitz, Euskadiko Justi-

la añadida disidencia normativa, lo que implicaría que, de ser aceptada la modificación fáctica, sería la Sala de los Social del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la que debería proceder entonces a la elección del derecho considerado aplicable, construyendo así el recurso, en labor que es propia de parte, y que implicaría actividad contraria a los principios de imparcialidad, contradicción y adecuada garantía del derecho a la defensa.

SEGUNDA.— De entrar a conocer del recurso de suplicación planteado por la empresa demandada, igualmente debiera desestimarse la petición de incorporación de un nuevo hecho probado tal y como se recoge en el primer motivo de suplicación del recurrente, dado que se basa en documentos que el Magistrado de instancia ya ha tenido en cuenta para la elaboración fáctica de la Sentencia y además pretende incorporar la particular interpretación de pruebas practicadas en el acto de juicio oral por encima del prevalente y soberano criterio del Juzgador de instancia.

En el relato de los hechos probados no cabe incluir razonamientos, juicios de valor o conclusiones y como la nueva redacción que ofrece contiene una manifiesta valoración sobre las pruebas practicadas por imperativo del artículo 97 procede desestimar este motivo de recurso.

TERCERA.— Igualmente procede la desestimación del segundo de los motivos de suplicación al basarse en documentos que fueron valorados y conocidos por el juzgador de instancia en unión de los restantes obrantes en autos, a través de los cuales y en función de la facultad que le atribuye el art. 97.2 de la Ley Procesal llegó a su objetiva e imparcial versión, que no puede quedar devaluada por la parcial e interesada valoración de la recurrente, ni puede la sala sustituir al Organismo de instancia en tal función, al no evidenciarse que se hubiera apartado de las reglas del lógico criterio.

Por lo expuesto,

SUPLICA AL JUZGADO DE LO SOCIAL que teniendo por presentado este escrito en tiempo y forma con sus copias, ordene su incorporación al expediente de su razón y ordene que se remita todo ello, al Tribunal que ha de conocer el recurso, y, en su consecuencia:

DE LA SALA DE LO SOCIAL DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO SUPLICA que, teniendo por presentado este escrito con sus copias y por impugnado el Recurso de Suplicación, lo admita y en virtud de lo alegado en el cuerpo de este escrito, proceda a confirmar la Sentencia de instancia en todos sus extremos.

zia Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko Salak erabaki beharko luke zer zuzenbide den aplikagarri, eta errekurtsua berak egin, dagokion bezala alderdiek egin beharrean. Hori, ordea, inpartzialtasun, kontraesan, eta defentsa eskubidearen printzipioen aurkakoa izango litzateke.

BIGARRENA.— Demandatutako enpresak planteatzen duen erregutze-errekurtsua aztertuz gero, erregutzeko lehenengo arrazoian agertzen den beste egitate frogatu bat onartzeko eskaera ezetsi egin beharko litzateke. Izan ere, eskaera hori instantziako magistratuak bere epaiaren alde faktikoan kontuan hartu dituen dokumentuetan oinarritzen da. Gainera, nagusia den instantziako epailearen irizpide subiranoaren gainetik, eskaerak ahozko judizioan burututako frogen interpretazio partikularra onartzea nahi du.

Frogatutako egitateak azaltzerakoan, ezin da sartu arrazoibide, balio-judizio edo konklusorik; eta planteatzen den idazkera berrian, nabarmena da burututako frogen balorazioa. Hori ikusita, 97. artikuluko aginduaren arabera, errekurtsorearen arrazoi hau ezetsi egin behar da.

HIRUGARRENA.— Erregutzeko bigarren arrazoa ere ezetsi egin behar da, auzibide-agirietan agertzen diren gainerako dokumentuekin batera, instantziako epaileak ezagutu eta baloratu zituen dokumentuetan oinarritzen delako. Horien arabera, epaileak, Lege Prozesaleko 97.2 artikulua ematen dion ahalmenaz baliatuz, bere bertsio objektibo eta inpartziala eman zuen, eta hori ezin da gutxietsi errekurritzaileak egiten duen balorazio partzial eta interesatuaren arabera. Salak ezin du instantziako organoa ordeztu bere funtzio horretan, ez baita frogatu irizpide logikotik aldendu denik.

Adierazitakoaren arabera,

GIZARTE ARLOKO EPAITEGIARI ESKATZEN DIOT idazki hau eta beraren kopiak garaiz eta forma egokian aurkeztutzat jo ditzala, dagokion espendienteari erants diezazkiola, eta hori guztia errekurtsua aztertuko duen auzitegiari bidali, eta, beraz:

EUSKADIKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALARI ESKATZEN DIOT erregutze-errekurtsua aurkaratzen duen errekurtsu hau eta beraren kopiak aurkeztutzat jo eta onar ditzala, eta, idazki honetan alegatutakoaren arabera, instantziako epaia erabat berrets dezala.

OTROSÍ DICE que el presente escrito de impugnación de Recurso de Suplicación lleva firma de la Letrada Ainara Jauregi Monasterioguren, con domicilio a efectos de citación en Balmaseda-48010, C/ Alameda Pío XII, 62 Bajo, que es el domicilio que se designa a efectos de notificación del presente trámite de recurso.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 8 de enero de 2012.

BEREBAT DIOT erregutze-errekurtsoa aurkaratzen duen errekurtso honen Ainara Jauregi Monasterioguren abokatuaren sinadura daramala —zitazioetarako helbidea, errekurtso honen inguruko jakinarazpenetarako: Pío XII Zumardia, 63 behe, 48010-Balmaseda—.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko urtarrilaren 8an.

22. Personación ante el Tribunal Supremo

Recurso de la Sala de lo Social del T.S.J. del País Vasco n.º 2024/10

Jdo. Origen: J.S. n.º 7 de Bilbao. Autos n.º 392/11

PERSONACIÓN DE LA PARTE RECURRIDA

RECURSO DE CASACIÓN PARA LA UNIFICACIÓN DE LA DOCTRINA

A LA SALA DE LO SOCIAL DEL TRIBUNAL SUPREMO

Mario Larrarte Oleaga, Letrado del Ilustre Colegio de Bizkaia, con domicilio a efectos de citación en Gernika-48010, Plaza de los Fueros, 62 Bajo, en nombre y representación de LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK-LAB, parte demandada en las presentes actuaciones, cuyas circunstancias y representación ya constan en el expediente arriba referenciado; ante la Sala de lo Social del Tribunal Supremo comparece y como mejor proceda en Derecho DICE:

Que por medio del presente escrito viene a personarse ante la Sala de lo Social del Tribunal Supremo en calidad de recurrido en el Recurso de Casación para la unificación de la doctrina que la demandante ha anunciado que interpondrá frente a la Sentencia dictada por la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de fecha 26 de noviembre de 2010 en Recurso de Suplicación n.º 2024/10, dimanante de los autos del Juzgado de lo Social n.º 7, autos n.º 392/11.

22. Auzitegi Gorenaren aurrean pertsonatzea

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko errekurtsua: 2042/10.

Jatorriko epaitegia: Bilboko Gizarte Arloko 7 zenbakiko Epaitegia. Auzia: 392/11.

ALDERDI ERREKURRITUAREN PERTSONATZEA

DOKTRINA BATERATZEKO KASAZIO-ERREKURTSOA

AUZITEGI GORENEKO GIZARTE ARLOKO SALARI

Ni, Mario Larrarte Oleaga, Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko abokatua —zitazioak egiteko helbidea, Gernika 48010, Foruen enparantza 62, behea— LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK —LAB— ordezkatzuz (horren zirkunstantziak eta ordezkapena goian aipatutako espedientean agertzen dira), Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko Salaren aurrean agertzen naiz, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, ESATEN DUT:

Idazki honen bitartez Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko Salaren aurrean errekurritu gisa pertsonatzen naizela, demandatzaileak iragarritako Doktrina Bateratzeko Kasazio Errekurtsuan. Aipatutako errekurtsua Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko 2024/10 erregutze-errekurtsuan iragarri da, 2010eko azaroaren 26an emandako epaiaren aurka; erregutze-errekurtsua Gizarte Arloko 7 zenbakiko Epaitegiko 392/11 zenbakiko auzi-agirietatik dator.

Por lo expuesto, A LA SALA DE LO SOCIAL DEL TRIBUNAL SUPREMO

SUPLICA que habiendo por presentado este escrito con sus copias se sirva admitirlo y tener por personada a esta parte como recurrida en el Recurso de Casación para la Unificación de la Doctrina anunciado frente a la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco recaída en las presentes actuaciones.

Por ser de Justicia que se pide en Bilbao a 10 de enero de 2011.

Azaldutakoagatik, AUZITEGI GORENEKO GIZARTE ARLOKO
SALARI

ESKATZEN DIOT idazki hau eta beraren kopiak aurkeztuzat eman eta onar ditzala, eta, jarduketa hauetan iragarritako doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsuan, alderdi hau errekurritu gisa agertuzat har dezala.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2011ko urtarrilaren 10ean.

23. Solicitud de desglose

AL JUZGADO DE LO SOCIAL NÚMERO 3

D. Jon Mendia, ya circunstanciado ante ese Juzgado como demandado en autos 123/12 seguidos a instancia de Nerea Arrue, sobre CANTIDAD, respetuosamente comparezco y como más procedente sea en Derecho digo:

Que siendo firme la sentencia dictada en las referidas actuaciones y habiendo aportado a las mismas esta parte los siguientes documentos: nóminas correspondientes al año 2010, intereso, previo desglose de los mismos, me sean entregados.

Por lo expuesto,

SUPLICO A JUZGADO que, habiendo presentado este escrito con su copia, tenga a bien admitirlo, acordando se me entreguen los documentos anteriormente relacionados, previo su desglose.

Pues así procede en justicia que pido en Bilbao a 3 de junio de 2012.

Firma

23. Banakatze-eskaera

GIZARTE ARLOKO 3 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Ni, Jon Mendia, alderdi demandatua Nerea Arrueren eskariz bideratzen ari diren DIRU-KOPURU BATI BURUZKO 123/12 auzi honetan, agertzen naiz, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, esaten dut:

Auzi honetan emandako epaia irmoa izanik, auzibide-agirietara nik ekarritako dokumentu hauek bereizi eta itzultzeko eskatzen dudala: 2010. urteari dagozkion nominak.

Azaldutakoagatik,

Epaitegiari ESKATZEN DIOT idazki hau eta beraren kopia aurkeztutzat eman eta onar ditzala eta aipatutako dokumentuak bereiztea eta niri ematea erabaki dezala.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko ekainaren 3an.

Sinadura

24. Solicitud de certificación

AL JUZGADO DE LO SOCIAL NÚMERO 2

Dña. Miren Urkola, demandante en el proceso 123/12 seguido ante ese Juzgado contra El Corte Ingles, sobre CANTIDAD, respetuosamente comparezco y, como mejor proceda en Derecho, digo:

Que por serme necesario para su presentación como medio de prueba en otro procedimiento, intereso se me expida certificación de la sentencia dictada en estos autos.

Por lo expuesto, y de acuerdo con lo prevenido en los artículos 234 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y 47 de la de Jurisdicción Social, del Juzgado

SUPLICO que, habiendo por presentado este escrito con su copia tenga a bien admitirlo, acordando se me expida y entregue la certificación anteriormente indicada.

Pues así procede en justicia que pido en Bilbao, a 3 de junio de 2012.

Firma

24. Ziurtagiri-eskaera

GIZARTE ARLOKO 2 ZENBAKIKO EPAITEGIARI

Ni, Miren Urkola, El Corte Inglés enpresaren aurkako DIRU-KOPURU BATI BURUZKO 123/12 auzian demandatzaile naizela, agertzen naiz, eta, zuzenbidean bidezkoen den moduan, esaten dut:

Auzi honetan emandako epaiaren ziurtagiria eskatzen dudala, beste prozesu batean frogabide gisa aurkezteko.

Azaldutakoagatik, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234. artikularen eta Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 47. artikularen arabera, epaitegiari,

ESKATZEN DIOT idazki hau eta beraren kopia aurkeztutzat eman eta onar ditzala, eta aipatutako ziurtagiria egin eta niri ematea erabaki dezala.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Bilbon, 2012ko ekainaren 3an.

Sinadura

25. Certificación de sentencia para recurso de casación

A LA SALA DE LO SOCIAL DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO

Dña. Ainhoa Legarra, mayor de edad, provista de DNI n.º 35.869.875, con domicilio en Erandio, San Agustín Plaza, 3.1, C.P. 48950, ante esa Sala respetuosamente expongo:

Que, a fin de ser aportada con el escrito de interposición del recurso de casación para la unificación de doctrina que me propongo presentar ante la Sala Cuarta de lo Social del Tribunal Supremo, intereso se me expida y entregue certificación de la sentencia —con expresión de su firmeza o, en otro caso, de que no se ha preparado contra la misma, dentro del plazo legal, recurso de casación para la unificación de doctrina— dictada por esta Sala de lo Social, en fecha 1 de septiembre de 2010, n.º 117/2002, en el rollo 25/2010, seguido a virtud de recurso de suplicación interpuesto por Dña. Ainhoa Legarra, sobre despido, siendo parte recurrida GARBIENA, S.A.

Autorizo a Mikel Agirre, para que, en mi nombre y representación, recoja la mencionada certificación.

Por lo expuesto, y de acuerdo con lo prevenido en los artículos 234 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y 47 y 222 de la de Jurisdicción Social,

25. Epaiaren ziurtagiria kasazio-errekurtsorako

EUSKADIKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALARI

Nik, Ainhoa Legarrak —adinduna, 35.869.875 zenbakiko NANA; helbi-dea, San Agustin Plaza 3.1, 48950 Erandio—, sala honen aurrean agerturik, errespetu guttiz azaltzen dut:

Sala honek emandako 117/2010 zenbakiko epaiaren (25/2010 erroilua) ziurtagiria egin eta niri emateko eskatzen dudala —ziurtagiriak adierazi behar luke epaia irmoa dela edo, bestela, ez dela haren kontra doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsorik aurkeztu legezko epean. Epaia 2010eko irailaren 1eko kaleratzeari buruz Ainhoa Legarrak jarritako erregutze-errekurtsuan emandakoa da, alderdi errekurritua GARBIENA, S.A. izanik. Epai hori eta beraren ziurtagiria Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko 4 zenbakiko Salaren aurrean aurkeztuko dudan doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsuaren idazkiari eransteko behar ditut.

Mikel Agirre baimentzen dut, nire izenean eta ni ordezkatzuz, aipatutako ziurtagiria jasotzeko.

Azaldutakoagatik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 234. artikuluekin eta Gizarte Arloko Jurisdikzioaren Legearen 47. eta 224. artikuluekin bat,

SUPLICO A LA SALA que, habiendo presentado esta solicitud, tenga a bien admitirla y acordar se me expida y entregue la certificación antes indicada.

Pues así procede en justicia, que pido en Donostia, a 3 de junio de 2012.

Firma

Salari ESKATZEN DIOT eskaera hau aurkeztutzat eman eta onar dezala,
eta arestian aipatutako ziurtagiria egin eta eman diezadala.

Bidezkoa delako eskatzen dut, Donostian, 2012ko ekainaren 3an.

Sinadura

